



**DERION HAUR ETA GAZTEEN EUSKARAZKO AISIALDI-ZERBITZUA ESKAINTZEKO
KONTRATUA ARAUTU BEHAR DUTEN ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEN
PLEGUAREN KARATULA**

I.- KONTRATUAREN ELEMENTUAK

1.- ESPEDIENTE-ZENBAKIA: 2017-CAD-2

2.- ESPEDIENTEA SUSTATU DUEN UDALEKO ARLOA: Kultura Arloa

3.- KONTRATAZIO-ORGANOA: Derioko Udaleko Alkatetza

4.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea da Derioko Udalak sustatutako haur eta gazteentzako euskarazko zerbitzuen kudeaketa integrala egitea, Baldintza Teknikoen Pleguari eta kontratuko gainerako dokumentazioari jarraikiz.

EBko Kontratuen Hiztegi Komuneko kodeak (CPV):

79952100-3 Kultura-ekitaldiak antolatzeako zerbitzuak

92331210-5 Haurrentzako animazio-zerbitzuak

55243000-5 Haurrentzako oporretako kolonien zerbitzuak

ARAUDI HARMONIZATUARI LOTUTAKO KONTRATUA: EZ

ERREKURTSO BEREZIA JASO DEZAKEEN KONTRATUA: BAI

Bete beharreko administrazio-beharrak:

Herriko 4 eta 18 urteko biztanleei zuzendutako ludoteka- eta gazteleku-programa bat abian jartzea, eta “Derioko Udalekuak” programa antolatzea, baita Udalak sustatzen dituen eta udalerriko haur eta gazteei zuzenduta dauden gainerako proiektu, programa edo jarduerak ere. Horiek guztiek honako balio hauek sustatu beharko dituzte: topaketa, gizarteratzea, parte-hartzea, jolasa, aisialdia, ohitura osasungarriak, balioetan oinarritutako hezkuntza, ingurumen-hezkuntza, hezkuntza inklusiboa, kulturartekotasuna eta ikaskuntza solidarioa.

Esleipendunak bere proposamena egitean bere gain hartutako betebeharrei kalterik eragin gabe, honako dokumentu hauek kontratu-izaera izango dute:

- Karatula.
- Administrazio Klausula Berezien Plegua.



DERIOKO UDALA

2017-CAD-2

- Baldintza Tekniko Berezien Plegua.
- Formalizazio-agiria.

5.- ALDAERA EDO ALTERNATIBAK: Ez dira onartzen.

6.- LOTEAK: Ez.

7.- KONTRATUAREN IRAUPENA ETA LUZAPENAK:

Kontratuaren iraupena: 2 URTE, kontratua formalizatzen denetik.

URTEBETEKO aldietan luzatu ahal izango da, GEHIENEZ BI ALDIZ, baldin eta alderdiek berariaz adosten badute, gutxienez hasierako epea edo luzapenetako edozein amaitu baino hiru hilabeteko lehenago. Kontratuaren iraupen osoak, luzapenak barne, ezin izango du lau urte baino gehiagokoa izan.

8.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA:

Argitalpenen eta aplikatu beharreko esleipen-prozeduraren ondorioetarako, hau izango da kontratuaren balio zenbatetsia:

Balio zenbatetsia: 973.824 euro (BEZik gabe).

9.- KONTRATUA LIZITATZEKO AURREKONTUA:

Gehieneko lizitazio-prezioa: 243.456 euro (BEZik gabe).

Zifra hori da beheranzko eskaintzentzako gehienekoa, eta hori gainditzen duten eskaintzak automatikoki kanporatuak izango dira.

10.- AURREKONTU-ESLEIPENA:

3341 2260701 Haurrak. Udalekuak.
3341 2260706 Haurrak. Ludotekaren kudeaketa.
3342 2271102 Gazteak. Gaztelekuaren kudeaketa.


11.- PREZIOA ZEHAZTEKO SISTEMA: Oroharreko prezioan.

12.- AURRETIAZKO IZAPIDETZEA: Ez.

13.- IZAPIDETZEA: Ohikoa.

14.- BITARTEKO ELEKTRONIKOAK

Ez dira onartzen. Kontratatzailearen profilean jasotako datuak informatzeko baino ez dira.



II.- KONTRATATZEKO EZARRITAKO BETEKIZUNAK

15. AHALMENA

Pertsona natural edo juridikoei ez zaie kontraturik esleituko baldin eta estatutuen edo sorrerako araudiaren arabera berezko dituzten helburuak, xedea edo jarduera-esparrua kontratuaren prestazioarekin bat ez badatoz.

16.- ESKATUTAKO ENPRESA-GAIKUNTZA: Ez da eskatzen.

17.- KAUDIMENA:

• **EKONOMIA- ETA FINANTZA-KAUDIMENA:**

Ekonomia- eta finantza-kaudimenaren gutxieneko betekizunak: Urteko negozio-bolumena, amaitutako azken hiru urteen artean negozio-bolumen handiena izan dueneko; gutxienez 365.184 eurokoa izan beharko du, alegia, kontratua lizitatzeko prezioaren batez besteko urteko kuota bat eta erdiren baliokidea.


Honela egiaztatuko da: Enpresaria Merkataritza Erregistroan izena emanda badago, urteko negozio-bolumena egiaztatuko da onartutako eta erregistro horretan gordetako urteko kontuen bidez; bestela, inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean gordetako kontuen bidez. Merkataritza Erregistroan izena eman gabeko enpresariak, urteroko negozio-bolumena egiaztatzeke, inbentarioen liburuak eta urteko kontuak aurkeztuko dituzte, Merkataritza Erregistroak legeztaturikoak, hain zuzen.

(OHARRA: urteroko negozio-bolumena deritzo merkataritza-legerian ezarritako urteko kontuen arauzko ereduaren galera eta irabazien kontuan agertzen den negozio-zifraren zenbateko garbiari)

• **KAUDIMEN TEKNIKO ETA/EDO PROFESIONALA:**

Kaudimen tekniko eta/edo profesionalaren gutxieneko eskakizunak: Esperientzia izatea kontratuaren xede den lanaren mota edo ezaugarri bereko lanetan eta azken bost urteetako lan handieneko urtean metatutako zenbatekoa 170.419,2 euro edo gehiago izatea (kontratuaren lizitazio-prezioaren batez besteko urteko kuotaren aurrekontuaren % 70en baliokidea).

Honela egiaztatuko da: Azken bost urteotan egindako lan edo zerbitzu nagusien zerrenda (plegu honen IV. eranskineko ereduaren arabera), zerbitzu edo lan horien zenbatekoak, datak eta hartzaile publiko zein pribatuak aipatuz. Hartzailea sektore publikoko erakunde bat bada, organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako agirien bitartez egiaztatu beharko dira egindako lanak edo zerbitzuak; hartzailea arlo pribatuko subjektua bada,



DERIOKO UDALA

2017-CAD-2

horrek emandako ziurtagirien bidez, eta halako ziurtagiririk ezean, enpresariaren aitortpenaren bidez.

- **ESKATUTAKO KAUDIMENA ORDEZKA DEZAKEEN ENPRESA-SAILKAPENA:**

Ezin da eskatu, APKLA Oren 46. artikulua araberan (1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onartzen duena).

M taldea; 6 azpitaldea

L taldea; 5 azpitaldea

III.- LIZITAZIOA

18.- ESLEITZEKO PROZEDURA: Irekia.

SPKLTBren 109. eta 138. artikuluetan zehaztutakoari jarraituz.

19.- LIZITAZIOAREN PUBLIZITATEA: Bizkaiko Aldizkari Ofiziala eta Kontratatzailearen Profila.

20.- BALORATU BEHARREKO KONTRATUKO ALDERDIAK:

1) Formula bidez ebalua daitezkeen balorazio-irizpideak (% 55):

a) Ludotekako, Gaztelekuko eta udalekuetako programak diseinatzeko eta garatzeko prezioa osoa: gehieneko balorazioa: **45 puntu.**

b) Behar gehigarrietarako monitorearen prezioa, orduko: gehieneko balorazioa: **10 puntu.**

Kategoria bakoitzean (a eta b), eskaintza ekonomikoenari emango zaio puntuazio gorena, eta gainerako eskaintzei, berriz, formula honen bidez lortzen den puntuazioa emango zaie:

Eskaintza onenaren zenbatekoa

Puntuak = _____ x gehieneko puntuazioa

Baloratu beharreko eskaintzaren zenbatekoa

2) Balio-judizio bidez zenba daitezkeen irizpideak (% 45): 45 puntu.

a) **Lizitzailearen eskaintzaren balorazioa, egindako proiektuen proposamenen alderdi hauek aintzat hartuta:**

- Helburu orokorrak eta espezifikak.
- Metodologia.
- Pleguan ezarritako jarduerak programatzeko ereduak.
- Zerbitzuaren koordinazioa eta segimendua egiteko proposamena.
- Jarduerari eta material suntsikorriari esleitutako aurrekontua banatzeko proposamena.



DERIOKO UDALA

2017-CAD-2

- Ebaluazioaren balorazioa; irizpideak, formularioak, erreferentziako adierazleak...
- Publizitate-plana eta erabiltzaileekin eta haien familiekin harremanetan jartzeko ereduak.
- Egutegi-proposamena, jardueretarako eta langileen ordutegietarako erreferentzia gisa 2017/2018 ikasturtea hartuta.
- Hezkuntza-behar bereziak dituzten pertsonekin lan egiteko protokoloa.
- Zerbitzura lotuta dauden pertsonak prestatzeko eta enpresa birziklatzeko proposamena.
- Berdintasunerako eta bitzita pertsonala eta lanekoa bateratzeko neurriak.

Proiektu orokorraren balorazioa (Ludoteka + Gaztelekua): 15 puntu.

Pleguan proposatutako adin-sektore bakoitzerako programazio espezifikoaren balorazioa: 10 puntu.

Udalekuetako proiektuaren balorazioa: 10 puntu.

b) Hobekuntzak (% 10): Gehienez **10 puntu** emango zaizkio zerbitzua gauzatzeko egin beharreko jarduerak hobetzen dituen eskaintzari; hobekuntza gisa egiten diren proposamenak bakarrik baloratuko dira, alegia, proiektuaren egutegian gutxieneko gisa zehaztu diren arloetatik kanpokoak diren ekitaldi eta jarduerak aipatzen dituztenak. Zerbitzua dinamizatzeke ezohiko plana izango da eta, hala badagokio, ohiko ekintzetatik kanpo egingo diren jarduera edo tailerren proposamenei buruzko dokumentazioa barne hartuko du. Ekintza horiek ludoteka dinamizatzea izango dute xede eta ez diote aparteko gasturik ekarriko Udalari. Tailerrak, jarduerak eta halakoak proposatuz gero, edo horiek gauzatzeko materiala edo jostailuak erostea proposatuz gero, ekintza horiek zer egunetan egin nahi diren adierazi beharko da. Enpresak ordaindu beharko du material guztia erosteko kostua, bai ezohiko jardueren bai ohiko jardueren kasuan. Plan honen kargura proposatzen diren jardueraren bat gauzatzeak ez du inola ere justifikatutako esleipendunak fakturazio gehigarririk egitea.

21.- BALORATU BEHARREKO ENPRESEN ALDERDI EKONOMIKO ETA TEKNIKOAK EGIAZTATZEKO AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIO TEKNIKOAK:

Eskaintza ekonomikoa eta proposamen teknikoa, eta Udalarentzat inolako gasturik gabe eskainitako hobekuntzak, karatula honetako 22. puntuan ezarritakoari jarraikiz.

22.- DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO MODUA ETA EPEA:

1. GUTUN-AZALA.- ADMINISTRAZIO-DOKUMENTAZIOA.
2. GUTUN-AZALA.- BALIO-JUDIZIOA BEHAR DUTEN ESLEIPEN-IRIZPIDEAK, ESKAINTZA TEKNIKOA ETA HOBKUNTZAK.
3. GUTUN-AZALA.- ESKAINTZA EKONOMIKOA.



DEGIKO UDALA

2017-CAD-2

Gutun-azal guztiek itxita eta honako datu hauekin identifikatuta egon beharko dute nahitaez:

GUTUN-AZALA: (GUTUN-AZALAREN ZENBAKIA ETA IZENBURUA)

DOKUMENTAZIOA: (SARTUTAKO AGIRIEN ZERRENDA)

Kontratuaren izenburua:

Espediente-zk.: **2017-CAD-2**

Izen soziala:

IFK:

Helbidea:

Ahaldunaren izena:

NAN

Harremanetarako telefono-zenbakia:

Harremanetarako pertsona:

Helbide elektronikoa:

AURKEZTEKO EPEA: 15 egun, kontratuaren iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik.

23.- LIZITATZAILEEN PROPOSAMENA (ESKAINZA): AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1. GUTUN-AZALA.- ADMINISTRAZIO-DOKUMENTAZIOA:

- **Erantzukizunpeko adierazpena** (plegu honetako **I. eranskineko** ereduaren arabera); horren bidez, lizitatuak adieraz dezake betetzen dituela kontratatze eskatutako baldintzak, eta, zehazki, plegu honetan zehaztutakoak. Adieraz dezake, halaber, hori egiaztatzen duen dokumentazio guztia duela, eta konpromisoa hartzen du edozein unetan dokumentazio hori aurkezteko, kontratazio-organoak eskatuz gero; dena den, esleipena bere aldekoa bada, dokumentu horiek kasu guztietan aurkeztu beharko ditu, esleipena egin baino lehen.

Adierazpen honen edukia bat etorriko da zehaztutako ereduarekin, eta eredu horri ez jarraitzea lizitazioetik kanpo geratzeko arrazoi izan daiteke.

Jakinarazten da legeak eta plegu honek kontratatzeko ezarritako baldintzak bete direla egiaztatzeke une erabakigarria proposamenak aurkezteko epearen amaiera izango dela.



DERIOKO UDALA

2017-CAD-2

2. GUTUN-AZALA.- BALIO-JUDIZIOA BEHAR DUTEN ESLEIPEN-IRIZPIDEAK, ESKAINTZA TEKNIKOA ETA HOBKUNTZAK.

Karatula honetako **20.2) puntuan zehazten den dokumentazio tekniko**a sartu beharko da (proiektu orokorra, Udalekuaren proiektua, pleguan zehaztutako adin-sektore bakoitzak gauzatuko dituen programazio espezifikoak, hobekuntzak –halakorik balego–), formula bidez zenbatu ezin diren eta balio-judizioa behar duten irizpideei jarraikiz. Hemen sartu beharko da, halaber, lizitatzailleak egokitzat jotzen duen dokumentazio oro, baldin eta ez badu loturatik prezioarekin.

Dokumentuak GEHIENEZ 70 orrialde izango ditu, eranskinak barne (goiko eta beheko marjinak: 3 cm; ezkerrekoa: 2,5 cm; eskuinekoa: 2 cm; letra mota: arial, 11; lerroartea: 1,5 lerro; paragrafoak justifikatuta; koskarik ez; paragrafoaren aurreko tartea: 6 puntu). Ezarritako mugak gaindituz gero, zehapena jarriko zaio eskaintza egin duenari, bere eskaintzarengatik lortutako puntuen erdiaren baliokidea.

3. GUTUN-AZALA.- ESKAINTZA EKONOMIKOA.

Proposamen ekonomikoa, plegu honetako **II. eranskinaren** araberakoa. Eskaintzak aurkeztean plegu honetako II. eranskinean ezarritako ereduari ez jarraitzea lizitaziotik kanpo geratzeko arrazoi izan daiteke.

Eskaintza ekonomikoarekin batera, **kostuen azterketa** bat aurkeztu behar da; bertan, eskaintzaren prezioa honako kontzeptu hauetan banakatuta jaso beharko da:


- Subroga daitezkeen langileak
- Materialak eta jarduerak
- Aparteko orduak
- Gastu orokorrak eta irabaziak

Kontratua gauzatzeko beste batzuk azpikontratatu behar direnean, azpikontratatu diren prestazioak edo unitateak zein diren adierazi beharko da, eta azpikontratazioaren ehunekoak zein den zehaztu beharko da. Halaber, azpikontratatzaillearen izena eta enpresa-profila ere adieraziko da, eta bi alderdiek sinatutako konpromiso-agiria (plegu honetako **XII. eranskinean** ageri den ereduaren araberakoa) erantsiko da.

24.- BEHIN-BEHINEKO BERMEA: Ez.

25.- KONTRATAZIO-MAHAIA:

Kontratazio-mahaia eratuko da. Kideak:



DERIOKO UDALA

2017-CAD-2

Presidentea: Esther Apraiz Fernández de La Peña and.

Kideak:

- EAJ-PNV udal-taldeko zinegotzi bat
- Euskal Herria Bildu Derio udal-taldeko zinegotzi bat
- Euskal Sozialistak udal-taldeko zinegotzi bat
- Belén Renobales Sanjines and.
- María Cambeiro Salgado and.

Idazkaria: Nahia Beneitez Tejera and. (ahotsarekin, baina botorik gabe)

Ordezkoak:

- Presidentearena: Nekane Aiarza Zallo and.
- Idazkariarena: Belén Renobales Sanjines and.

26.- EZOHIKO BALIOAK EDO NEURRIZ KANPOKOAK DITUZTEN ESKAINTZAK: Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onartzen duen Errege Dekretuaren (urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua) 85. artikuluaekin bat etorritik.

IV.- KONTRATUAREN ESLEIPENA

27.- KONTRATUA ESLEITU AURRETIK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.

Kontratazio-organoak eskaintza ekonomikorik onena egin duen lizitatzailari eskatuko dio, **HAMAR (10) EGUN BALIODUNEKO** epean, eskakizuna jaso eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, honako ziurtagiri hauek aurkezteko:

A.- ADMINISTRAZIO-DOKUMENTAZIOA.

A-I.- Jarduteko gaitasuna ziurtatzen duten agiriak, honako hauen arabera:

- a) **PERTSONA FISIKOA:** proposamena egiten duen pertsonaren NANA edo horren baliokidea den agiri fede-emailea.
- b) **PERTSONA JURIDIKOA:** eraketa- edo aldaketa-eskribura aurkeztu beharko da; eskribura Merkataritza Erregistroan inskribatuta egongo da, baldin eta betekizun hori zehazten bada aplikatu beharreko merkataritza-legerian. Baldintza hori ezarri ezin bada, eratzeko eskribura edo -agiria, estatutuak edo sortze-egintza. Dokumentu horiek bere jardueraren erregulatzen duten arauak barne hartu beharko dituzte eta dagokion erregistro publikoan egon beharko dute inskribatuta, hala badagokio; Identifikazio Fiskaleko Kodeak (IFK) ere agertu beharko du. Agiri horien originalak aurkeztu beharko dira, edo, bestela, indarrean dagoen legeriaren arabera jatorrizkoaren balioa duen kopia bat edo



DERIOKO UDALA

2017-CAD-2

horretarako eskumena duen funtzionario batek konpultsatutako kopia. Agiri horietan zehaztasun osoz agertu beharko da lizitatzaillearen araubide juridikoa zein den proposamena aurkezteko unean.

- c) ENPRESARIEN ALDI BATERAKO ELKARTEAK: partaide bakoitzak bere gaitasuna, nortasuna, ordezkaritza eta kaudimena ziurtatu beharko ditu. Aparteko agiri batean zehaztuko dira elkartea osatzen duten enpresen izena eta inguruabarrak, bakoitzaren partaidetza-portzentajea, eta kontratua indarrean dagoen bitartean administrazioaren aurrean enpresa guztien ordezkaritza izango duen pertsona izendatu beharko da.
- d) ESPAINIARRAK EZ DIREN BAINA EUOPAR BATASUNeko ESTATU KIDEREN BATEKOAK EDO EUROPAKO EKONOMIA-ESPARRUAREN HITZARMENA SINATU DUEN HERRIALDEREN BATEKOAK DIREN ENPRESARIAK: erregistro profesional edo merkataritza-erregistro bateko inskripzioa, baldintza hori nahitaezkoa denean dagokion estatuan. Bestela, Administrazio Publikoetako Kontratuen Araudiko I. eranskinean adierazten diren ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.
- e) EUOPAR BATASUNeko KIDE EZ DIREN EDO EUROPAKO EKONOMIA-ESPARRUAREN HITZARMENA SINATU EZ DUTEN ESTATUREN BATEKO PERTSONA FISIKO EDO JURIDIKOAK: Espainiak enpresa helbideratuta dagoen tokian duen Diplomaziako Ordezkaritza Iraunkorrek edo Kontsuletxeko Bulegoak emandako txostena. Bertan adieraziko da tokiko erregistro profesional, komertzial edo antzeko batean inskribatuta daudela, edo, halakorik ezean, toki horretan kontratuaren xedearekin zerikusia duten ekintzetan jardun ohi dutela. Enpresak alde aurretik egiaztatu beharko du hori. Horrez gain, SPKLTBko 55. artikuluan aipatzen den elkarrekikotasun-txostena aurkeztu beharko dute.

A-II.- Ordezkaritza egiaztatzen duten agiriak. Beste pertsona baten izenean agertzen direnek edo beste pertsona baten izenean proposamenak sinatzen dituztenek, bai eta pertsona juridiko bat ordezkatzeko dutenek ere, behar adinako ordezkaritza-ahalordea dutela adierazten duen ziurtagiria aurkeztu beharko dute, eta ziurtagiri hori jarduneko abokatu batek edo idazkari nagusiak sinatu beharko du. Jatorrizko agiria edo kopia konpultsatua aurkeztu beharko da. Halaber, ahalordetzea edo ordezkaritza eman zaion pertsonaren NANaren kopia konpultsatua ere aurkeztu beharko da. Ordezkaritza egiaztatzen duen agirian adieraziko balitz eskumenak behin betiko eskuordetu direla, hori hala dela agertu beharko da Merkataritza Erregistroan.

A-III.- Ekonomia- eta finantza-kaudimena eta kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzeko agiriak.

Ekonomia- eta finantza-kaudimena:



DEGIKO UDALA

2017-CAD-2

1.- Enpresaria Merkataritza Erregistroan izena emanda badago, onartutako eta erregistro horretan gordetako urteko kontuak; bestela, inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean gordetako kontuak. Merkataritza Erregistroan izena eman gabeko enpresariak inbentarioen liburuak eta urteko kontuak aurkeztuko dituzte, Merkataritza Erregistroak legeztaturikoak, hain zuzen.

Kaudimen teknikoa:

1.- Azken bost urteotan egindako lan edo zerbitzu nagusien zerrenda (plegu honen IV. eranskineko ereduaren arabera), kontratuaren xede diren lanen antzekoak bakarrik aipatu; zerbitzu edo lan horien zenbatekoak, datak eta hartzaile publiko zein pribatuak adierazi beharko dira.

A-IV.- Talde bereko enpresen zerrenda, sozietate talde bateko kide diren pertsona juridikoen kasuan.

A-V.- Desgaitasuna duten langileak kontratatuta edukitzeko konpromisoari buruzko erantzukizun-adierazpena, baldin eta enpresak 50 langile edo gehiago baditu, Minusbaliatuak Gizarteratzeari buruzko Legearen (apirilaren 7ko 13/1982 Legea) 38.1 artikuluekin bat etorri; edota salbuespen-kasuetan erreserba-kuota desgaitasuna duten langileei emateko alternatiba (plegu honetako XI. eranskineko ereduaren arabera) arautzen duen apirilaren 8ko 364/2005 Errege Dekretuan ezarritako neurri alternatiboak hartu direla adierazten duena.

A-VI.- Enpresarien aldi baterako elkarteak.

Aldi baterako elkartearen ekonomia- eta finantza-kaudimena, eta kaudimen teknikoa zehazteko eta horren ondoreetarako, elkarte osatzen duen enpresa bakoitzaren ezaugarri frogatuak gehituko dira.

Kontratu enpresarien aldi baterako elkarte bati esleitu balitzaio, elkarte horrek frogatu beharko du eskritura publiko bidez eratu dela. Horrez gain, kontratua formalizatu baino lehen, elkarteari esleitu zaion IFK zein den frogatu beharko du. Elkartearen iraupena kontratuarena bestekoa izango da, hura iraungi arte.

A-VII.- Atzerriko enpresen jurisdikzioa.

Atzerriko enpresek adierazpen bat aurkeztu beharko dute; adierazpen horretan onartuko dute Espainiako ordena guztietako epaitegi eta auzitegi guztien jurisdikzioaren mende egongo direla, kontratuarekin lotura zuzena zein zeharkakoa duten auzi guztietarako eta, beharrezkoa balitz, uko egingo diotela dagokien atzerriko jurisdikzio-foruari.

LIZITATZAILEEN ERREGISTROKO ZIURTAGIRIAREN BIDEZ EGIAZTATZEA.

Plegu honetako aurreko 1., 2. eta 3. puntuetan zerrendatutako egoerak frogatzeko agiriaren ordez, honako erregistro hauetako batek emandako ZIURTAGIRIA aurkeztu ahal izango da:



DEGIOKO UDALA

2017-CAD-2

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofiziala.
2. Lizitatzailleen eta Enpresa Sailkatuen Estatuko Erregistro Ofiziala (hala badagokio).
3. Sailkapenari buruzko EBko ziurtagiria.

Dagokion erregistroko ziurtagirian jasota ez dauden egoerak direla eta, eskatu diren egiaztagiriak aurkeztuko dira.

Edonola ere, aipatu ziurtagiriarekin batera, lizitatzaillearen erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu beharko da, eta bertan adieraziko da dagokion ziurtagirian jasotako egoerek bere horretan jarraitzen dutela (plegu honetako V. eranskineko ereduari jarraikiz).

B.- ZERGEN ADMINISTRAZIOKO ESTATUKO AGENTZIAK EDO FORU OGASUNAK EMANDAKO ALDEKO ZIURTAGIRIA; BERTAN GENERIKOKI ADIERAZIKO DA ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO KONTRATUEN ARAUDIKO 13. ARTIKULUAN EZARRITAKO BALDINTZAK BETETZEN DIRELA.

C.- KONTRATUAREN XEDEARI BURUZKO EPIGRAFEAN AIPATUTAKO JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGAN ALTA EMAN IZANAREN EGIAZTAGIRIA (JATORRIZKOA EDO KOPIA), AZKEN ORDAINAGIRIA ETA ZERGA HORREN MATRIKULAN BAJA EMAN EZ IZANAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA EDO ZERGA HORRETATIK SALBUESTEKO ARRAZOIARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA (plegu honetako IX. eranskineko ereduaren arabera); HORREZ GAIN, TOKI-OGASUNEI BURUZKO FORU-ARAUAREN (EKAINAREN 30eko 6/1989 FORU-ARAU) 5. ARTIKULUAN ZEHAZTUTAKO SALBUESPEN-KASUREN BATEAN EGONEZ GERO, SALBUESPENA EMATEN DUEN BERARIAZKO EBAZPENA AURKEZTU BEHARKO DA.

D.- GIZARTE SEGURANTZAREN DIRUZAINTZAK EMANDAKO ALDEKO ZIURTAGIRIA; BERTAN GENERIKOKI ADIERAZIKO DA APKLAren 14. ARTIKULUAN EZARRITAKO BALDINTZAK BETETZEN DIRELA.

E.- BEHIN BETIKO BERMEA JARRI DELA FROGATZEN DUTEN AGIRIAK, plegu honetako VI., VII. eta VIII. eranskinetako ereduari jarraikiz.

F.- ASEGURU-ERAKUNDEAREN ZIURTAGIRIA; HORREN BITARTEZ FROGATUKO DA KONTRATISTAK SINATUTAKO ASEGURU-POLIZA(K) INDARREAN DAGOELA/DAUDELA, KARATULA HONEN 38. ATALEAN EZARRITAKO KONTZEPTU, ZENBATEKO, ESTALDURA,



DERIOKO UDALA

2017-CAD-2

IRAUPEN ETA BALDINTZETARAKO. HORREZ GAIN, DAGOKION POLIZA ETA KONTRATUA INDARREAN EGON DEN EKITALDI GUZTIEI DAGOKIEN URTEROKO PRIMA ORDAINDU IZANAREN ZIURTAGIRIA EDO JUSTIFIKANTEA ERE AURKEZTU BEHARKO DIRA, plegu honetako XIII. eranskineko ereduari jarraikiz.

G.- ESLEIPENDUNA ENPRESARIEN ALDI BATERAKO ELKARTEA BADA, ELKARTEA FORMALIZATU IZANAREN ESKRITURA PUBLIKOA. HALABER, ELKARTEA OSATZEN DUEN ENPRESA BAKOITZAK OGASUNAK/OGASUNEK ETA GIZARTE SEGURANTZAK EMANDAKO ALDEKO ZIURTAGIRIAK AURKEZTU BEHARKO DITU, BAITA JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGARI DAGOZKION AGIRIAK ERE.

H.- HITZEMAN BEZALA, GIZARTE-BAZTERKERIAKO EGOERAN DAUDEN PERTSONAK KONTRATATU DIRELA EGIAZTATZEKO LAN-KONTRATUAK, GIZARTE SEGURANTZAKO KOTIZAZIOEN AGIRIAK ETA PERTSONA HORIEN EGOERA EGIAZTATZEN DUTEN TXOSTENAK, ESKUMENA DUTEN GIZARTE-ZERBITZU PUBLIKOEN EMANDAKOAK.

I.- KONTRATUA GAUZATZEARI ATXIKIKO ZIZKIOLA HITZEMANDAKO BALIABIDEAK BADITUELA EGIAZTATZEN DUEN DOKUMENTAZIOA, SPKLTBren 64.2 ARTIKULUAREKIN BAT, plegu honetako X. eranskineko ereduari jarraikiz.

J.- APLIKATU BEHARREKO HITZARMEN KOLEKTIBOAREN AIPAMENA. Lizitatzailleak aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa zehazten duen zinpeko deklarazioa aurkeztu beharko du.

28.- BEHIN BETIKO BERMEA: esleipenaren zenbatekoaren % 5, BEZik gabe.

V.- KONTRATUA GAUZATZEA

29.- KONTRATUAREN ARDURADUNA:

Derioko Udaleko Kultura Arloa.

30.- ORDAINKETEN ARAUBIDEA:

Ordainketen aldizkakotasuna: zerbitzua eman den hilabeteetan, 30 eguneko epean, eginiko zerbitzua onartu den egunetik zenbatzen hasita, baldin eta kontratistak faktura aurkeztu behar du fakturatutako zerbitzuari dagokion hilaren ondorengo 30 egunetan.

Ordaintzeko modua: kontratistak eginiko fakturak aurkeztu ondoren egingo da ordainketa, Administrazio Klausula Berezien Pleguan ezarritakoaren arabera eta banku-transferentzia



DERIOKO UDALA

2017-CAD-2

bidez. Fakturretan zehaztuta egongo dira emandako zerbitzuak, datak eta fakturatutako kontzeptuak banakatuta, eta horietako bakoitzaren banakako zenbatekoa adierazita, egindako eskaintzaren arabera.

BOST MILA (5.000,00) EURO edo gehiagoko fakturak elektronikoki aurkeztu beharko dira, Derioko Udalaren webgunean horretarako jarritako sarbidean (www.deriokoudala.net).

Aurkezteko lekua: Derioko Udalaren Erregistroa (Herriko Plaza 3; 48160 Derio).

Fakturretan agertu behar duten datuak:

- Izapidetzea dagokion organoa: Alkatetza, Kultura Arloaren bitartez.
- Kontabilitate publikoaren arloan eskumenak dituen administrazio-organoa: Kontu Hartzailletza.
- Kontratazio-organoa: Derioko Udaleko Alkatetza.
- Faktura onesteko eskumena duen organoa: Derioko Udaleko Alkatetza.
- Hartzailea: Derioko Udala (Herriko Plaza 3, Derio, Bizkaia).

31.- PREZIOAK BERRIKUSTEA: Ez dagokio.

32.- AZPIKONTRATAZIOA

EGOKITZAT JOTZEN DA, SPKLTBren 227. artikularekin bat etorriz.

GEHIENEKO PORTZENTAJEA: % 50era arte.

Azpikontratzen bada, lizitatuak eskaintzan adierazi beharko dute (3. GUTUN-AZALEAN) azpikontratzea aurreikusten duten kontratuaren zatia, dagokion portzentajea eta azpikontratatzen izena edo enpresa-profila adierazita. Horrez gain, bi alderdiek sinatutako konpromiso-agiria aurkeztu beharko dute (plegu honetako **XII. eranskineko** ereduaren arabera).

Edonola ere, azpikontratuak bat etorri beharko dute eskaintzan adierazitakoarekin, eta egin aurretik jakinarazi behar zaio, idatziz, administrazioari.

33.- ZEHAPENAK: 26. eta 27. klausuletan ezarritakoak.

34.- KONTRATUA JASOTZEKO EPEA: HILABETE (1).

35.- KONTRATUAREN BERMEALDIA: BI (2) HILABETE.

36.- KONTRATUA ALDATZEA:



DERIOKO UDALA

2017-CAD-2

Kontratua aldatu ahal izango da, SPKLTBren 107. artikuluan zehaztutako ezaugarriak gertatzen direnean eta bertan adierazitako mugekin. Horrez gain, elementu bakoitzaren alokairuari egun gehiago gehitu ahal izango zaizkio, Udalaren beharren arabera, baldin eta kalkulaturako kontratuaren balioa gainditzen ez bada.

37.- KONTRATUA BERTAN BEHERA UZTEKO ARRAZOIAK:

Kontratazio-organoak kontratua bertan behera utzi ahal izango du, SPKLTBren 223. eta 308. artikuluetan ezarritako arrazoietakoa bat dela medio, SPKLTBren 224., 225. eta 309. artikuluetan eta APKLAOren 109.-113. artikuluetan zehaztutako ondorioekin.

38.- ASEGURUAUAK:

EGOKITZAT JOTZEN DA: BAI.

POLIZA MOTAK:

Esleipendunak honako poliza hauek eta horiek ordaindu izanaren ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu:

1.- Erantzukizun zibileko poliza (orokorra, patronala eta gurutzatua), hirugarren pertsonen sorrarazitako kalteengatik eta bere langileek edo mendekoek (iraunkorrek edo aldi baterakoak), makinek eta ekipoek sorraraz ditzaketenengatik, baita zerbitzua gauzatzean eginiko lanen ondorioz sorrarazitako kalteengatik ere. Ezbehar bakoitzeko kalte-ordainaren gutxieneko muga 300.000 eurokoa izango da.

2. Istripu-poliza, honako estaldura hauekin:

Istripuagatik ezintasun iraunkorra, gutxienez 10.000,00 €-ko estaldurarekin.

Legearen arabera, ezin zaie heriotzagatiko estaldurarik eman 14 urtetik beherako hurrei; horrenbestez, estaldura horren ordean ehorzketa-gastuen berme bat emango da, gutxienez 3.005,00 €-ko kapitalarekin.

39.- KONTRATUA GAUZATZEKO HIZKUNTZA-BALDINTZAK:

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legearen (1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Legea) eta hori garatzen duten arauetan ezarritakoa. Horrenbestez, kontratuaren enpresa esleipendunak eta balizko azpikontratatzailleek kontratua gauzatzean begiratu egin beharko dute bi hizkuntzen (euskararen eta gaztelaniaren) koofizialtasunaren kontratua betetzen den, eta euren jarduerari eta herritarrek dituzten hizkuntza-eskubideak betetzeari dagokienez, elebitasun-irizpideei helduko diete.



DERIOKO UDALA

2017-CAD-2


Hizkuntza-baldintzak betetzea nahitaezkoa da kontratua gauzatzeko, eta horiek ez betetzeak kontratu honen edozein klausula ez betetzeagatik oro har ezar daitezkeen ondorioak ekarriko ditu.

40.- LANGILEEN SUBROGAZIOA:

XVII. ERANSKINEAN jasotako subrogazio-taulan zehaztutako datu eta baldintzen arabera.

41.- BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK:

Lizitatuzaileek eskatuz gero, Administrazio Klausula Berezien Pleguko eranskin gisa jasota dauden adierazpen- eta ziurtagiri-ereduak emango zaizkie, WORD formatuan.



DERION HAUR ETA GAZTEEN EUSKARAZKO AISIALDI-ZERBITZUA ESKAINTZEKO KONTRATUA ARAUTU BEHAR DUTEN ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEEN PLEGUA

AURKIBIDEA

DERION HAUR ETA GAZTEEN EUSKARAZKO AISIALDI-ZERBITZUA ESKAINTZEKO KONTRATUA ARAUTU BEHAR DUTEN ADMINISTRAZIO-KLAUSULA BEREZIEEN PLEGUA	3
LEHENENGO KAPITULUA.- XEDAPEN OROKOKORRAK.	3
1. klausula.- Kontratuaren xedea.	3
2. klausula.- Bete beharreko administrazio-beharrak.	3
3. klausula.- Lege-araubidea.	3
4. klausula.- Kontratuaren zatiak.	4
5. klausula.- Kontratuaren aurreikusitako balioa eta kontratuaren lizitazioaren aurrekontua.	5
6. klausula.- Aurrekontu-kreditua egotea.	5
7. klausula.- Kontratuaren iraupena.	5
8. klausula.- Bermeen araubidea.	6
9. klausula.- Kontratazio-espeditzea izapidetzea.	7
10. klausula.- Bitarteko elektronikoak.	8
BIGARREN KAPITULUA.- LIZITAZIOA.	8
11. klausula.- Esleitzeko prozedura eta eskaintzen eskaera.	8
12. klausula.- Baloratu beharreko kontratuko alderdiak.	8
13. klausula.- Proposamenak aurkeztea.	8
14. klausula.- Berdintasuna, gardentasuna eta konfidentzialtasuna.	9
15. klausula.- Proposamenen forma eta edukia.	9
16. klausula.- Ezohiko balioak edo neurriz kanpokoak dituzten eskaintzak.	10
17. klausula.- Prozedurako enpresa lizitatuzailearen ondorengotza.	10
18. klausula.- Aurkeztutako dokumentazioa kalifikatzea, hautaketa-irizpideak baloratzea eta proposamenak ireki eta aztertzea.	11
19. klausula.- Esleipen-proposamenaren eraginak. Uko edo atzera egitea.	11
HIRUGARREN KAPITULUA.- ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA.	12
20. klausula.- Esleipen-proposamena eta kontratuaren esleipena.	12
21. klausula.- Aseguruak.	18
22. klausula.- Kontratua perfektionatzea eta formalizatzea.	18
LAUGARREN KAPITULUA. KONTRATUA GAUZATZEA.	18



DEGIKO UDALA

2017-CAD-2

23. klausula.- Lanen hasiera.	18
24. klausula.- Kontratuaren arduraduna.	19
25. klausula.- Kontratua betetzea.	19
26. klausula.- Lan akastunak edo gaizki gauzatuak.	19
27. klausula.- Kontratua betetzeko epea.	20
28. klausula.- Kontratistari egin beharreko ordainketak eta ordainketak egiteko epea.	20
29. klausula.- Fakturak.	21
30. klausula.- Prezioak berrikustea.	21
31. klausula.- Laneko eta gizarteko betebeharrak.	21
32. klausula.- Bitarteko materialak eta pertsonalak.	22
33. klausula.- Kontratua gauzatzeko hizkuntza-baldintzak.	22
34. klausula.- Lantaldean desgaitasunen bat duten langileak izatera behartuta dauden enpresak.	23
35. klausula.- Kontratua gauzatzeko beste baldintza berezi batzuk.	23
36. klausula.- Kontratua aldatzea.	26
37. klausula.- Kontratua bertan behera uztea.	26
38. klausula.- Kontratua exekutatu bitartean kontratatutako enpresa beste enpresa batek ordezkatzeta.	26
39. klausula.- Konfidentzialtasuna.	27
40. klausula.- Datu pertsonalen tratamendua.	27
41. klausula.- Lanen jabetza.	28
BOSGARREN KAPITULUA.- KONTRATUA IRAUNGITZEA.	28
42. klausula.- Kontratua betetzea.	29
43. klausula.- Bizioak eta akatsak bermealdian zehar.	29
44. klausula.- Bermea baliogabetzea eta itzultzea.	30
45. klausula.- Kontratua ezeztatzea.	30
46. klausula.- Kontratuen lagapena eta azpikontratazioa.	31
SEIGARREN KAPITULUA. PRIBILEGIOAK, ERREKURTSOAK ETA BALIOGABETASUN-ESKEA.	32
47. klausula.- Administrazioaren pribilegioak.	32
48. klausula.- Kontratazioaren arloko errekurtsio berezia.	32
49. klausula.- Berraztertze errekurtsioa.	33
50. klausula.- Baliogabetasun-eskea.	33



DERION HAUR ETA GAZTEEN EUSKARAZKO AISIALDI-ZERBITZUA ESKAINTZEKO KONTRATUA ARAUTU BEHAR DUTEN ADMINISTRAZIO-KLAUSULA BEREZIEN PLEGUA

LEHENENGO KAPITULUA.- XEDAPEN OROKOKORRAK.

1. klausula.- Kontratuaren xedea.

Kontratu honen xedea da pleguko **karatularen 4. atalean** ageri den zerbitzua ematea.

Zerbitzua kontratu honen parte diren plegu honetan eta Baldintza Teknikoen Pleguan ageri diren baldintzen arabera izango da.

Pleguko **karatularen 5. atalean** horretarako baimena ematen bada, lizitatzailleek adierazitako betebeharrei eta baldintzei dagozkien aldaerak aurkeztu ahal izango dituzte, puntu horretan adierazitako gehieneko zenbatekoan.

Karatularen 6. atalean adierazten denari jarraikiz kontratua hainbat lotetan banatzen bada, lote bakoitzaren xedea modu independentean gauza daitekeen unitate funtzional bat izango da. Lote bakoitza bereiz esleitu ahal izango da.

2. klausula.- Bete beharreko administrazio-beharrak.

Kontratuaren xedea eta bete behar diren beharrak Pleguaren **karatularen 4. atalean** daude adierazita.

3. klausula.- Lege-araubidea.

Kontratuak administrazio-izaera du, eta honako hauek arautuko dute:

- Plegu honetan ageri diren baldintzak, karatulako zehaztapenak eta Baldintza Teknikoen Pleguan ageri direnak barne.
- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuari buruzko Legearen Testu Bategina onesten duena (SPKLTB).
- 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onartzen duena (APKLAO).
- 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuari buruzko Legearen (urriaren 30eko 30/2007 Legea) zati bat garatzen duena.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena; eta 781/86 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki-araubidearen alorrean indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onesten duena.
- 1995eko uztailaren 17ko Dekretuaren bidez onetsitako Toki Korporazioetako Zerbitzuen Araubidearen III. titulua.



DERIOKO UDALA

2017-CAD-2

- Kontratazioa arautzen duten gainerako xedapen guztiak, estatu-mailan, autonomia-erkidego mailan eta eskualde-mailan, eskualdean aplikatzekoak badira.
- Gehigarri gisa, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira, eta, halakorik egon ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

Hitzartutakoa gauzatzeari dagokionez, kontratuko edozein baldintza, berau osatzen duten dokumentu erantsiak edo administrazioak ateratako aginduak, pleguak edo mota guztietako arauak ez ezagutzeak ez du kontratista salbuetsiko berau betetzetik.

Plegu honetan ezarritakoa ez badator bat Baldintza Tekniko Berezien Pleguan ezarritakoarekin, lehentasuna izango du plegu honetan ezarritakoak, izaera teknikoa duten auzi eta zehaztapenetan izan ezik.

4. klausula.- Kontratuaren zatiak.

A) Administrazio kontratatzailea.

Kontratatzeko eskumena.- Plegu honetako **karatularen 3. atalean** adieraziko da zein den kontratazio-organoa.

Kontratuaren arduraduna.- Plegu honetako **karatularen 29. atalean** adierazten dena edo kontratazio-organoak kontratua gauzatzeko aukeratzen duena.

Kontratatzailearen profila: www.deriokoudala.net/

Udalaren webgunearen bidez ikus daiteke. Bertan, kontratazio-organoaren kontratu-jarduerari buruzko datuak eta informazioak biltzen dira.

B) Kontratista.

Kontratatzeko gaitasuna.- Derioko Udalarekin kontratua egin ahal izango dute pertsona natural edo juridiko guztiek, espainiar zein atzerritarrek, jarduteko gaitasun osoarekin eta kontratatzeko inolako debekurik gabe, kaudimen ekonomiko, finantzario edo tekniko edo profesionala dutela, edo behar bezala sailkatuta daudela egiaztatzen badute, SPKLTBk horrela eskatzen duenean. Halaber, enpresariak enpresa-gaikuntza edo gaikuntza profesionala izan beharko dute, hala badagokio, kontratuaren xedea den jarduera edo prestazioa gauzatzeko eskatzen bada.

- a) Pertsona juridikoak: ez zaie kontraturik esleituko haien estatutuen edo sorrerako araudiaren arabera berezko dituzten helburuak, xedea edo jarduera-esparrua kontratuaren prestazioarekin bat ez badatoz.
- b) Espainiarrak ez diren baina Europar Batasuneko kide diren estatuetako enpresariak: kontratuak egin ahal izango dituzte, baldin eta kontratuaren helburuari dagokion prestazioa gauzatzeko ahalmena badute, beren estatuko legeriaren arabera.



- c) Enpresarien elkarteak: Udalarekin kontrata dezakete helburu horrekin aldi baterako eratutako enpresarien elkarteek; horretarako, enpresariak betebeharrak solidarioa izango dute, eta ez da beharrezkoa izango elkarteak eskritura publiko bidez formalizatzea kontratua beren alde esleitu arte. Halaber, ordezkari edo ahalgabetatutakoak izendatu beharko dute elkartearen ordezkatzeko, eta hark kontratua iraungi bitartean horretatik eratorritako eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko eskumen nahikoa izango du, enpresek zenbateko esanguratsuen kobratzeko eta ordaintzeko izan ditzaketen botere erkideetan eragin gabe. Enpresarien aldi baterako elkartearen iraupena bat etorriko da kontratuaren iraupenarekin, iraungi arte.

5. klausula.- Kontratuaren aurreikusitako balioa eta kontratuaren lizitazioaren aurrekontua.

Esleipenaren prozedura eta publikitatea zehazte aldera, kontratu honentzat aurreikusi den eta administrazioak ordaindu beharko duen balioa, BEZik gabe, **karatulako 8. atalean** adierazi dena da.

Kontratu honen lizitazio-aurrekontua plegu honen **karatularen 9. atalean** zehaztutakoa da.

Lizitazio-aurrekontuak (plegu honetako **karatularen 9. atala**) barne hartzen ditu kontzeptu guztiak, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, eragiketari aplikatu dakioken beste edozein zerga edo gastu, joan-etorrien gastuak, kide anitzeko elkarteek jarritako bisak (hala dagokionean) eta gainerako guztiak barne.

Lizitazioaren proposamen ekonomikoak ezin izango du izan kontrataziorako onetsi den lizitazio-aurrekontua baino altuagoa; horren zenbatekoa plegu honen **karatularen 9. atalean** dago adierazita. Lizitazioaren proposamena **karatularen 9. atalean** adierazitakoa baino altuagoa bada, eskaintza ez da onetsiko.

6. klausula.- Aurrekontu-kreditua egotea.

Kreditu zehatza dago kontratu hau bete ahal izateko administrazioak bere gain hartu behar dituen betebeharrak ekonomikoak aurre egiteko. Horri dagokion aurrekontu-esleipena **plegu honen karatularen 10. atalean** ageri da.

Kontratuaren espedienteak alde aurreko izapidetzea badu, hori adieraziko da **karatularen 12. atalean**. Alde aurreko izapidetzea duten kontratazio-espedienteetan, esleipena onesteke geldituko da dagokion ekitaldian horretarako kreditu nahikoa eta egokia dagoela egiaztatzen arte.

7. klausula.- Kontratuaren iraupena.

Kontratuaren gehieneko iraupena edo gehieneko gauzatze-aldia plegu honetako **karatularen 7. atalean** adieraziko da.

Plegu honetako **karatularen 7. atalean** hala ezartzen denean, kontratua luzatu ahal izango da, prestazioak errepikatuz. Luzapena kontratazio-organoak erabakiko du, eta enpresariak



nahitaez bete beharko du, betiere plegu honetako **karatularen 7. atalak** aurkakoa ezartzen ez badu. Ezin da horrelakorik egin alderdien isileko adostasunarekin. Luzapenak ezingo dira izan hasieran finkatutako epea baino luzeagoak, hala bakarka nola elkarrekin kontuan hartuta.

8. klausula.- Bermeen araubidea.

A.- Behin-behineko bermea.

Bermea jartzeko beharra eta haren zenbatekoa, hala badagokio, plegu honetako **karatularen 24. atalean** ezarriko da.

Behin-behineko bermea SPKLTBren 96. artikuluan ezarritako edozein modutan eman ahal izango da (pleguko **VI., VII. eta VIII. eranskinetan** ageri diren erduei jarraikiz).

Behin-behineko bermea jarri beharko balitz, kontratua esleitu arte eskaintzari eustearen araberakoa izango da. Dena den, esleipena lortzen duen enpresa lizitatzaillearen kasuan, behin-behineko bermea SPKLTBren 151.2 artikuluko paragrafoan ezartzen diren betebeharrak betetzearen araberakoa ere izango da (zerga-betebeharrak betetzea, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzea eta kontratua gauzatzeko eta behin betiko bermea eratzeko baliabideak izatea, hala badagokio).

Behin-behineko bermea automatikoki iraungiko da, eta enpresa lizitatzaillei berehala itzuliko zaie kontratua esleitu ondoren. Nolanahi ere, esleipenerako aukeratutako proposamena aurkeztu duen lizitatzailleari atxiki egingo zaio bermea, harik eta behin betiko bermea eratzten duen arte, eta bermea konfiskatu egingo zaie esleipena egin aurretik bidezko arrazoirik gabe proposamena erretiratu egiten duten enpresei.

B.- Behin betiko bermea.

Bermea jartzeko beharra dagoen ala ez, eta haren zenbatekoa, hala badagokio, plegu honetako **karatularen 28. atalean** ezarritakoak izango dira.

Eskaintza ekonomikorik onuragarriena aurkeztu duen enpresa lizitatzailleak frogatu egin beharko du behin betiko bermea jarri duela, plegu honetako **karatularen 27. atalean** adierazten den epean, behin betiko bermea eratu behar duela jakinarazten zaion egunaren biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

Behin betiko bermea SPKLTBren 96. artikuluan zehaztutako edozein modutan eman ahal izango da (pleguko **VI., VII. eta VIII. eranskinetan** ageri diren erduei jarraikiz).

Enpresarien aldi baterako elkarteei dagokienez, enpresa parte-hartzaileen sozietate-izena eta IFZ adierazi beharko dira. Halaber, parte hartzen duen enpresa batek edo gehiagok eratu ahal izango dituzte bermeak, baldin eta orotara eskatzen den kopurua lortzen bada eta aldi baterako elkarteko kide guztiak solidarioki bermatzen baditu.

Behin betiko bermea jartzeko eskatzen bada, berme horrek SPKLTBren 100. artikuluan aipatzen diren kontzeptuei erantzun beharko die.



Behin betiko bermea egokitzeko berraztertze-araubidea SPKLTBren 99. artikuluan ezarritakoa izango da.

Bermea ez da itzuliko ez baliogabetuko plegu honetako **karatularen 35. atalean** adierazitako bermealdia iraungi arte edo, hala badagokio, kontratuan ezarritako bermealdia iraungi arte, eta kontratuan adierazitakoa behar bezala bete arte edo kontratua bertan behera gelditzen den arte (kontratistaren errua ez den kasuetan). Izapidetzea SPKLTBren 102. artikuluan ezarritako arauen arabera izango da.

Prestazio osoa ez baizik eta zati bat jasotzen denean, bermearen zati proportzionala itzultzea edo baliogabetzea eskatu ahal izango du kontratistak, horretarako baimena ematen bada plegu honen karatulan.

Kontratua bertan behera gelditzen bada, ez da kontratua bertan behera utzi duenak jarritako bermea itzuliko edo bertan behera utziko hark bermea formalki jartzen duen arte.

9. klausula.- Kontratazio-espeditentea izapidetzea.

Kontratazio-espeditentearen izapidetzea arrunta, premiazkoa edo larria izango da, Plegu honetako **karatularen 13. atalean** esandakoari jarraikiz.

Premiazkoa.- Premiazko izaera duten espeditentek arruntak bezalaxe izapidetuko dira, berezitasun hauekin:

- a) Espeditentek lehentasuna izango dute izapidetzean esku hartzen duten organoek ebazteko orduan; organo horiek, hain zuzen ere, BOST (5) EGUNEKO epea izango dute dagozkien txostenak emateko edo dagozkien izapideak betetzeko.
- b) Esleipen-prozedura irekitzea adosten denean, SPKLTBn kontratua lizitzatzeko eta esleitzeko ezarri den epea erdira laburtuko da, SPKLTBren 156. artikuluko lehenengo paragrafoan kontratua formalizatu baino lehen itxaron behar diren hamabost egun baliiodunen epea izan ezik.
- c) Administrazioak kontratua gauzatzen hasteko erabaki ahalko du, kontratua formalizatu ez bada ere; dena den, horretarako, ezinbestekoa izango da bermea jarrita egotea.
- d) Kontratua gauzatzen hasteko epea ezin izango da HAMABOST (15) EGUN BALIODUN baino luzeagoa izan, formalizatu zen egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe hori gaindituko balitz, kontratua baliogabetu egin ahalko da, atzerapenaren eragilea ez bada ez administrazioa ez kontratista, eta hori adierazten bada bertan behera uzteko arrazoietan.

Larria.- Izapidetze larriko espeditentek honako araubide berezi hau izango dute:

Kontratazio-organoak, administrazio-espeditentea izapidetzeko beharrik gabe, izandako gertaera konpontzeko edo sortu den beharra asetzeko beharrezkoa den exekuzioa agindu ahalko du, edo horren xedea askatasunez kontratatu ahal izango du, osorik edo zati batean,



DERIOKO UDALA

2017-CAD-2

eta ez ditu horretarako SPKLTBn ezarritako baldintza formalak errespetatu beharko, ezta kreditu nahikoa egoteko baldintza ere. Akordio horrekin batera, dagokion kredituaren atxikipena egingo da, edo kreditua egokitzeko espedientea abiaraztea justifikatzen duten agiriak aurkeztuko dira.

Prestazioak gauzatzen hasteko epeak ezingo du hilabete baino luzeagoa izan, aurreko paragrafoan adierazitako akordioa erdietsi den unetik aurrera zenbatzen hasita. Epe hori gaindituz gero, prestazio horiek kontratatzeke ohiko prozedura izapidetu beharko da.

10. klausula.- Bitarteko elektronikoak.

Bitarteko eta euskarri elektronikoak, informatikoak eta telematikoak erabili ahal izango dira proposamenak eta agiriak aurkezteko eta organo kontratatzailearen eta interesdunen arteko jakinarazpenak eta komunikazioak egiteko, horrela ezartzen bada **karatularen 14. atalean**.

Atal horretan bertan adieraziko da zein atari informatikotan eskura daitezkeen bitarteko elektronikoen bidez lizitzatzeko beharrezkoak diren programak eta informazioa, baita non ikus daitezkeen iragarki-taula elektronikoa ere.

BIGARREN KAPITULUA.- LIZITAZIOA.

11. klausula.- Esleitzeko prozedura eta eskaintzen eskaera.

SPLKTBren 109., 138., 157., 158., 159., 160. eta 161. artikuluei jarraikiz, kontratua prozedura ireki bidez esleituko da, bat etorritik lege horretan ezarritako baldintzekin. Hori justifikatzeko kausa **karatularen 18. atalean** dago zehaztuta.

12. klausula.- Baloratu beharreko kontratuko alderdiak.


SPLKTBren 150. artikulua araberak, plegu honen **karatularen 20. atalean** adierazitako irizpideak hartu beharko dira kontuan proposamena baloratzeko eta ekonomikoki onuragarriena den eskaintza zehazteko.

13. klausula.- Proposamenak aurkeztea.

Proposamenak pleguan zehaztutako modu, epe eta lekuan aurkeztuko dira.

Enpresari bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Gainera, ezingo dute proposamenik aurkeztu enpresarien aldi baterako elkarten bidez, baldin eta bakarrik ere aurkeztu badute, eta ezin izango dute aldi baterako enpresaren elkarte batean baino gehiagotan parte hartu. Betebehar horiek hautsiz gero, ez da onartuko arau-hausleak aurkeztutako proposamen bakar bat ere.

Proposamenak aurkezteak esan nahi du enpresariak inolako baldintzarik gabe onartzen dituela plegu honetako eta kontratua arautzen duten Baldintza Teknikoen Pleguko klausula guztiak, inolako salbuespen edo eragozpenik gabe.



14. klausula.- Berdintasuna, gardentasuna eta konfidentzialtasuna.

Kontratazio-organoak tratu berbera eman behar die lizitatzaille guztiei, ez diskriminatzailea, eta gardentasun-printzipioaren arabera.

SPKLTBn esleipenen publikotasunari eta hautagai nahiz lizitatzaillei eman behar zaien informazioari buruz xedatutakoa alde batera utzi gabe, hautagai edo lizitatzailleek konfidentzial gisa zehatz dezakete eskaintzak egitean eman duten informazioaren zati bat, bereziki sekretu tekniko edo komertzialei eta horien alderdi konfidentzialei dagokiena; horretarako, plegu honen **XIV. eranskin**eko ereduak erabili behar dute (dagokion gutun-azalean sartu beharko da). Kontratazio-organoak ezin izango du informazio hori zabaldu beren baimenik gabe.

Era berean, kontratistak isilean gorde beharko du kontratua betetzen ari dela eskuratzen duen informazioa, baldin eta pleguetan edo kontratuan konfidentzial gisa ezarri bada informazio hori edo, informazioaren izaerarengatik, isilean gorde beharrekotzat hartu beharrekoa bada. Konfidentzialtasuna BOST (5) URTEZ errespetatu behar da, informazioa jasotzen denetik aurrera hasita, baldin eta pleguetan edo kontratuan epe luzeagoa ezartzen ez bada.

15. klausula.- Proposamenen forma eta edukia.

Proposamenek **HIRU (3) GUTUN-AZAL** izango dituzte, itxiak eta lizitatzailleak edo haren ordezkariak sinatuak; gutun-azal bakoitzaren kanpoan jarri beharko du dagokion kontratuaren erreferentzia-zenbakia eta izena (DERIOKO HAUR ETA GAZTEEN AISIALDI-ZERBITZUA), lizitatzaillearen izen-abizenak edo enpresaren izen soziala, helbidea, telefono-zenbakia, faxa eta dagokion IFZ eta IFK. Barnean, gutun-azalek bertako agirien zerrenda numeriko bat izan beharko dute. Gutun-azalak honela banatuta egongo dira:

A) 1. GUTUN-AZALA, «ADMINISTRAZIO-DOKUMENTAZIOA»: izen hori agertu beharko da eta honako agiri hauek izango ditu:

ERANTZUKIZUNPEKO AITORPENA.

SPKLTBren 146.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz (Ekintzaileak eta horien nazioartekotzea babesteari buruzko Legean –irailaren 27ko 14/2013 Legea– emandako idazketan), nahikoa izango da 1. GUTUN-AZALEAN SPKLTBren 146.1 artikuluan aipatutako eskakizun eta agiri guztiak eduki eta betetzearen erantzukizunpeko adierazpena sartzea, plegu honen **I. eranskinean** zehaztutako moduan.

Erantzukizunpeko adierazpenean aipatu beharreko agiri eta ziurtagiri horiek, eta, bidezkoa bada, gaitasun, nortasun eta ordezkartzaren gainerako egiaztagiririk (jatorrizkoak edo kopia konpultsatuta), hala eskatzen zaien lizitatzailleek baino ez dituzte aurkeztu beharko, esleipen-erabakia beren alde egin nahi denean. Lizitatzailleak eskatutako dokumentazioa, SPKLTBren 146.1 artikuluan aipatutakoa, aurkezten ez bada, hurrengo lizitatzailleari eskatuko zaio, eta horrela behin eta berriz, esleipen-erabakia formalizatu ahal izan arte.



BEHIN-BEHINEKO BERMEA.

Karatularen 24. atalean adierazitako zenbatekoko behin-behineko bermea jarri izanaren ziurtagiria, bidezkoa bada, bat etorri ezarritako baldintza eta eskakizunekin.

B) 2. GUTUN-AZALA, «BALIO-JUDIZIOA BEHAR DUTEN ESLEIPEN-IRIZPIDEAK, ESKAINTZA TEKNIKOA ETA HOBEKUNTZAK».

Gutun-azal honetan sartu beharko dira eskaintza teknikoak eta lizitatuak egokitzen dituen hobekuntzak, plegu honen **karatularen 20. atalean** adierazita dauden eta balio-judizioa behar duten esleipen-irizpideen harira eginkoak.

Era berean, **karatularen 32. atalean** hala zehazten bada, 2. gutun-azalean adierazi beharko da lizitatuak kontratuaren zer zati azpikontratatu nahi duen, horren zenbatekoa eta azpikontratisten izena edo enpresa-profila adierazita (enpresa-profilak kaudimen profesional edo teknikoaren baldintzei egiten die erreferentzia).

C) 3. GUTUN-AZALA, «ESKAITZA EKONOMIKOA».

Proposamen ekonomikoak plegu honen **II. eranskin** ereduari jarraituz idatziko da, eta ez da onartuko proposamenean faltarik, akatsik edo zirriborrorik egotea, administrazioak eskaintza baloratzeko funtsezkotzat jotzen duen informazioa argi ezagutzea oztokatzen badute. Proposamenean bat aztertutako eta onartutako agiriekin bat ez badator, oinarriko lizitazio-aurrekontua gainditzen badu, ezarritako ereduak asko aldatzen badu, proposamenean zenbatekoan ageriko akatsa badago, edo lizitatuak aitortu badu bideraezin bilakatzen duen akatsik edo bat ez etortzerik badago, kontratazio-organoak edo, halakorik eraten bada, kontratazio-mahaiak baztertu egingo du ebazpen arrazoitu baten bidez. Dena den, ez da baztertzeko arrazoi nahikoa izango ereduak hitz batzuk aldatzea edo ez aipatzea, betiere zentzua aldatzen ez bada.

16. klausula.- Ezohiko balioak edo neurri kanpokoak dituzten eskaintzak.

Eskaintzek ezohiko balioak edo neurri kanpokoak dituztela adierazteko, SPKLTBren 152. artikulua hartuko da oinarri, plegu honetako **karatularen 26. atalean** ezartzen badira ezohiko balioak edo neurri kanpokoak dituzten eskaintzak zein diren esateko parametro objektiboak.

17. klausula.- Prozedurako enpresa lizitatuaren ondorengotza.

Prozedura izapidetu bitartean, eta esleipena egin baino lehen, enpresa lizitatuaren edo hautagaiaren pertsona juridikoa baliorik geratzen bada enpresaren bat-egitea edo zatitzea dela eta, edo enpresaren ondarea besterendu delako, honako hauek hartuko dute bere lekua prozedura honetan: sozietate bereganatzaileak, bat-egitearen ondoriozkoak, zatitzearen onuradunak, ondarea erosi duenak edo jarduerari dagokion adarra erosi duenak, betiere kontratatze gaitasunerako baldintzak betetzen baldin baditu, kontratatze debekurik ez badu eta esleipen-prozeduran parte hartze plegu honetan eskatutako baldintzei dagokienez kaudimena egiaztatzen baldin badu.



DERIOKO UDALA

2017-CAD-2

18. klausula.- Aurkeztutako dokumentazioa kalifikatzea, hautaketa-irizpideak baloratzea eta proposamenak ireki eta aztertzea.

Dokumentazioa kalifikatzeko eta hautaketa-irizpideak aplikatzeko lanak kontratazio-mahaiak egingo ditu, halakorik eratu bada (**karatularen 25. atalean** ezarritakoari jarraikiz), edo, bestela, kontratazio-organoak. Horretarako, SPKLTBren 145. eta 146. artikuluetan xedatutakoa bete beharko da. Halaber, organo horiek irekiko dituzte eskaintzak eta **karatularen 20. atalean** adierazitako alderdiak baloratuko dituzte, bertan zehaztutako modu eta ordenan.

19. klausula.- Esleipen-proposamenaren eraginak. Uko edo atzera egitea.

Kontratazio-mahaiaren esleipen-proposamenak ez dio inolako eskubiderik ematen proposatutako enpresariari. Hark administrazioarekiko eskubideak eskuratuko ditu kontratua kontratazio-organoaren erabaki bidez esleitzen zaionean.

Esleipenaren aurretik kontratazio-organoak uko egiten badio kontratua egiteari edo prozeduran atzera egiten badu, lizitatzailerei horretarako ebazpen arrazoituaren berri emango die eta jakinarazpenean adieraziko die lizitazio-gastuengatik ordainduko zaien konpentsazioa.



HIRUGARREN KAPITULUA.- ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA.

20. klausula.- Esleipen-proposamena eta kontratuaren esleipena.

Kontratazio-mahaiak (halakorik eratu bada) edo kontratazio-organoak egingo du kontratua eskaintza onuragarriena egiten duenari aurkezteko proposamena, Administrazio Klausula Berezien Plegu honetan ezarrita dauden eta baloratu diren alderdi ekonomiko eta teknikoak eta hobekuntzak kontuan hartuta; aurkeztutako proposamenak puntu gehienetik gutxienera ordenatuko dira, eta baztertu egingo dira ezohiko balioak edo neurritz kanpokoak dituztenak.

Bi proposamen berdin edo gehiago aurkezten badira, Administrazio Klausula Berezien Plegu honetan ezarritako alderdi ekonomiko eta teknikoaren eta hobekuntzen arabera, esleipenean lehentasuna izango dute kaudimen teknikoa egiaztatzeko unean beren langileen % 2k baino gehiagok desgaitasuna dutela frogatzen duten enpresek, Plegu honetako 34. klausulan (Lantaldean desgaitasunen bat duten langileak izatera behartuta dauden enpresek kontratatuzko neurriak) aipatzen den betebeharra izan gabe. Hori aplikatzeko, lizitatuzaileek egoera horretan daudela egiaztatu beharko dute, dagozkien lan-kontratuak eta Gizarte Segurantzako kotizazio-agiriak aurkeztuta. Hainbat enpresa lizitatuzaile berdinduta gelditzen badira proposamen onuragarrienari dagokionez, eta, gainera, egiaztatzen badute lan-harremana dutela desgaitasunen bat duten pertsonekin (langileen % 2 baino gehiago), lehentasuna izango du kontratua esleitzean langileen artean desgaitasunen bat duten langile finkoen ehunekorik altuena duen lizitatuzaileak. Egoera berean badaude eta berdinduta jarraitzen badute, esleipenean lehentasuna izango du berriaz gizarte-bazterkeria egoeran dauden langileak sustatzeaz eta lan-munduan txertatzeaz arduratzen den enpresak, baldin eta formalki hitzematzen badu gutxienez lanpostuen % 30 beteko dituela SPKLTBren xedapen gehigarriko 2. atalean adierazitako kolektiboetako pertsonekin. Horien egoera eskumena duten gizarte-zerbitzu publikoek egiaztatuko dute. Aurreko guztia egiaztatu ondoren bi enpresa edo gehiagok berdinduta jarraitzen badute, esleipen-proposamena zozketa bidez erabakiko da.

Administrazio Klausula Berezien Plegu honetan ezarrita dauden eta baloratu diren alderdi ekonomikoaren eta hobekuntzen arabera eskaintza onuragarriena aurkeztu duen lizitatuzaileak honako betekizun hauek betetzen dituela egiaztatu beharko du, dagozkion agiriak aurkeztuta, kontratazio-organoaren aurrean (horretarako epea karatularen 27. atalean zehaztutakoa izango da, eskakizuna jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita):

A.- ADMINISTRAZIO-AGIRIAK:

1.- Jarduteko gaitasuna.

- 1.1.-** Enpresa pertsona juridikoa baldin bada, hala badagokio, eraketa- edo aldaketa-eskritura aurkeztu beharko da; eskritura Merkataritza Erregistroan inskribatuta egongo da, baldin eta betekizun hori aplikatu beharreko merkataritza-legeriaren arabera eskatu behar bada. Baldintza hori ezarri ezin bada, eratze-eskritura edo -agiria, estatutuak edo sortze-egintza. Agiri horiek bere jardura erregulatzen duten arauak barne hartu beharko dituzte eta dagokion erregistro publikoan egon beharko dute



DERIOKO UDALA

2017-CAD-2

inskribatuta, hala badagokio; Identifikazio Fiskaleko Kodeak (IFK) ere agertu beharko du. Agiri horien jatorrizkoak aurkeztu beharko dira, edo, bestela, indarrean dagoen legeriaren arabera jatorrizkoaren balioa duen kopia bat edo horretarako eskumena duen funtzionario batek konpultsatutako kopia. Agiri horietan zehaztasun osoz agertu beharko da lizitatzaillearen araubide juridikoa zein den proposamena aurkezteko unean.

1.2.- Bakarka jarduten duen enpresaria bada, NANaren edo, hala dagokionean, legearen aurrean NANaren ordezkari erabil dezakeen agiriaren kopia (kopia horrek jatorrizkoaren balioa izango du indarrean dagoen legeriaren arabera) edo horretarako eskumena duen funtzionario batek konpultsatutako kopia.

1.3.- Enpresariak ez badira espainiarrak, baina Europar Batasuneko kide den herrialderen batekoak edo Europako Ekonomia Esparruaren Hitzarmena sinatu duen herrialderen batekoak badira, jarduteko gaitasuna frogatzeko, erregistro profesional edo merkataritza-erregistro batean izena eman beharko dute, baldintza hori nahitaezkoa denean dagokion estatuan. Bestela, Administrazio Publikoetako Kontratuen Araudiko I. eranskinean adierazten diren ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.

Espainiarrak ez diren baina Europar Batasuneko kide diren estatuetakoko pertsonen gaitasuna izango dute sektore publikoarekin kontratuak egiteko, baldin eta kontratuaren helburuari dagokion prestazioa gauzatzeko ahalmena badute, beren estatuko legeriaren arabera. Halaber, enpresa horien estatuen legeek baimen berezia edo zerbitzua emateko erakunde zehatz batekoak izatea eskatzen dutenean, baldintza hori betetzen dutela egiaztatzea beharko dute.

1.4.- Aurreko paragrafoak esandakoan sartzen ez diren atzerriko enpresek, berriz, txostena ekarri beharko dute, Espainiak enpresa helbideratuta dagoen tokian duen Diplomaziako Ordezkaritza Iraunkorrek edo Kotsuletzeko Bulegoak emandakoa. Bertan adieraziko da tokiko erregistro profesional, komertzial edo antzeko batean inskribatuta daudela, edo, halakorik ezean, toki horretan kontratuaren xedearik zerikusia duten ekintzetan jardun ohi dutela. Enpresak hori aldeztu aurretik egiaztatzea beharko du.

Horrez gain, Espainiako Diplomaziako Ordezkaritza Iraunkorrek edo Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioaren Kanpo Merkataritzarako Idazkaritza Nagusiak emandako txostena ere aurkeztu beharko da, eta bertan adierazi beharko da estatuak sinatu egin zuela Munduko Merkataritza Antolakundeak egindako Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa, betiere kontratu horiek araudi harmonizatuen mendekoak badira; hala ez denean, SPKLTBren 55. artikuluan aipatzen den elkarrekotasun-txostena aurkeztu beharko da.

1.5.- Kontratua gauzatu ahal izateko ezinbestekoa den enpresa-gaikuntzari edo gaikuntza profesionalari buruzko ziurtagiriak, kasuan-kasuan dagozkionak, **karatularen 16. atalean** ezarritakoari jarraikiz, gaikuntza hori frogatzen duen sailkapen-ziurtagiria aurkezten den kasuetan salbu.



1.6.- Atzerriko enpresek dokumentazioaren itzulpen ofiziala aurkeztu beharko dute, gaztelaniaz.

2.- Ahalorde-askiestea.

Beste pertsona baten izenean agertzen direnek edo beste pertsona baten izenean proposamenak sinatzen dituztenek, bai eta pertsona juridiko bat ordezkatzen dutenek ere, behar adinako ordezkaritza-ahalordea dutela adierazten duen ziurtagiria aurkeztu beharko dute, eta ziurtagiri hori jarduneko abokatu batek edo idazkari nagusiak sinatu beharko du. Jatorrizko agiria edo kopia konpultsatua aurkeztu beharko da. Halaber, ahalordetzea edo ordezkaritza eman zaion pertsonaren NANaren kopia konpultsatua ere aurkeztu beharko da. Ordezkaritza egiaztatzen duen agirian adieraziko balitz eskumenak behin betiko eskuordetu direla, hori hala dela agertu beharko da Merkataritza Erregistroan.

3.- Ekonomia- eta finantza-kaudimena eta kaudimen tekniko edo profesionala.

Hala badagokio, **karatularen 17. atalean** eskatutako sailkapena izatearen ziurtagiria, jatorrizkoa edo kopia konpultsatua. Enpresak oraindik sailkapenik ez badu, horretarako eskaera egin duela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko du, eta justifikatu egin beharko du agiritan hutsegiteak zuzentzeko edo falta zaizkion agiriak aurkezteko ezartzen zaion epean eskatutako sailkapena duela.

Kontratuaren xede den prestazioaren zati bat gaikuntza edo baimen profesional jakin bat duten enpresa espezializatuek egin behar badute, espezializazio horri dagokion taldeko sailkapenaren ordez (halakorik eskatzen bada) enpresariak zati hori gauzatzeko behar den gaikuntza edota sailkapena duten beste enpresari batzuk azpikontratatzeko hartzen duen konpromisoa aurkeztu ahal izango da, baldin eta horiek gauzatu beharreko zatiaren zenbatekoa ez bada kontratuaren prezioaren % 50 baino gehiagokoa.

Espainiarrak ez baina Europar Batasuneko estatu kideetakoak diren enpresariak, Espainian sailkapenik izan ezean, **karatularen 17. atalean** zehazten den kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionalaren egiaztagiria aurkeztu beharko dituzte sailkapenaren ordez; alabaina, SPKLTBren 84. artikuluan Erkidegoko sailkapen-ziurtagiriei buruz xedatutakoa ere bete beharko dute.

Karatulak enpresa-sailkapena egiaztatzeke betebeharririk ezartzen ez badu, lizitatuzaileek frogatu beharko dute ekonomia- eta finantza-kaudimena eta kaudimen tekniko edo profesionala dutela, lizitazioaren iragarkian ezarritako baldintzetan eta bitarteko horien bidez; horiek **karatularen 17. atalean** daude zerrendatuta. Atal horretan bertan zehazten dira zein diren hautaketa-irizpideak, kaudimena frogatzeko bitartekoen arabera.

Kaudimena egiaztatzeke, enpresaria beste erakunde batzuen kaudimen eta baliabideetan oinarritu ahal izango da, horiekiko dituen loturen izaera juridikoa gorabehera, betiere frogatzen baldin badu kontratua gauzatzeko baliabide horiek eduki badituela.



DERIOKO UDALA

2017-CAD-2

Kontratazio-organoak kasu guztietan errespetatuko du enpresariak emandako datuen konfidentziasuna.

4.- Talde bereko enpresen zerrenda, sozietate talde bateko kide diren pertsona juridikoen kasuan.

5.- Lantaldean desgaitasunen bat duten langileak izatera behartuta dauden enpresek egin beharreko adierazpena.

Erantzukizun-adierazpena, plegu honetako **XI. eranskinean** ageri den ereduari jarraikiz. Horren bidez adieraziko da, esleipena jasoz gero, esleipendunak bere gain hartzen duela kontratuak iraun bitartean desgaitasunen bat duten langileak izateko betebeharra (lantalde osoaren % 2, gutxienez), enpresak 50 langile edo gehiago baditu eta kontratatzaileak baldintza hori bete behar badu, Minusbaliatuak Gizarteratzeari buruzko Legearen (apirilaren 7ko 13/1982) 38.1 artikuluari jarraikiz, edo, bestela, bere gain hartzen badu apirilaren 8ko 364/2004 Errege Dekretuan arauen bitartez deskribatutako neurri alternatiboak betetzeko beharra. Hala adierazten du plegu honetako 34. klausulak (Lantaldean desgaitasunen bat duten langileak izatera behartuta dauden enpresek kontratatzeke neurriak). Adierazpen horretan adieraziko da, halaber, kontratatzaileak onartu egiten duela kontratazio-organoaren aurrean aipatu berri den baldintza betetzen duela frogatzeko ardura, kontratuak dirauen bitartean edo, edonola ere, behin betiko bermea itzuli baino lehen, kontratazio-organoak hori frogatzeko eskatuko balio.

6.- Enpresarien aldi baterako elkarteak.

Esleipenaren aurreko fasean aldi baterako elkarte eraginkorra izan dadin administrazioaren aurrean, enpresari guztiek klausula honetan eskatutako agiriak aurkeztu beharko dituzte, baita konpromiso solidario bat ere; bertan, hau adieraziko dute: elkarte osatzen dutenen izenak eta egoera; horietako bakoitzaren partaidetza; kontratua esleitzen bazaie aldi baterako elkarte formalki eratzeke konpromisoa; elkarteko ordezkari edo ahaldun bakar baten izendapena (kontratuak dakartzan eskubideak baliatu eta betebeharrak betetzeko behar adinako ahalordearekin). Elkarte osatzen duten enpresa guztietako ordezkariak sinatu beharko dute agiri hori (**I. eranskineko erdua**).

Aldi baterako elkartearen ekonomia- eta finantza-kaudimena, eta kaudimen tekniko zehazteko eta horren ondoretarako, elkarte osatzen duen enpresa bakoitzaren ezaugarri frogatuak gehituko dira. Sailkapena eskatzen bada, gehikuntzaren araubidea Administrazio Publikoetako Kontratuen Araudiko 51. eta 52. artikuluetan ezarritakoa izango da.

Sailkapena eskatzen den kasuetan, elkarte osatzen duten enpresariak estatukoak, Europar Batasuneko kide ez diren herrialdeetakoak edo EBkoak diren herrialdeetakoak badira, lehenengo bi multzoetakoek frogatu beharko dute zerbitzuen kontratista gisa sailkatuta daudela; azkenekoek, berriz, ekonomia- eta finantza-kaudimena eta kaudimen tekniko edo profesionala dutela frogatu beharko dute.



DEGIKO UDALA

2017-CAD-2

Kontratua enpresarien aldi baterako elkarte bati esleituko balitzaio, elkarte horrek frogatu beharko du eskritura publiko bidez eratu dela. Horrez gain, kontratua formalizatu baino lehen, elkarteari esleitu zaion IFK zein den frogatu beharko du. Elkartearen iraupena kontratuarena bestekoa izango da, hura iraungi arte.

7.- Atzerriko enpresen jurisdikzioa.

Atzerriko enpresek adierazpen bat aurkeztu beharko dute; adierazpen horretan onartuko dute Espainiako ordena guztietako epaitegi eta auzitegi guztien jurisdikzioaren mende egongo direla, kontratuarekin lotura zuzena zein zeharkakoa duten auzi guztietarako eta, beharrezkoa balitz, uko egingo diotela berez dagokien atzerriko jurisdikzio-foruari.

LIZITATZAILEEN ERREGISTROKO ZIURTAGIRIAREN BIDEZ EGIAZTATZEA.

Plegu honetako aurreko 1., 2. eta 3. puntuetan zerrendatutako egoerak frogatzeko agirien orde, honako erregistro hauetako batek emandako ZIURTAGIRIA aurkeztu ahal izango da:

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofiziala.
2. Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Estatuko Erregistro Ofiziala (hala badagokio).
3. Saillkapenari buruzko EBko ziurtagiria.

Dagokion erregistroko ziurtagirian jasota ez dauden egoerak direla eta, eskatu diren egiaztagiria aurkeztuko dira.


Edonola ere, aipatutako ziurtagiriarekin batera, lizitatzailaren erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu beharko da, eta bertan adieraziko da dagokion ziurtagirian jasotako egoerek bere horretan jarraitzen dutela (plegu honetako V. eranskineko ereduari jarraikiz).

B.- ZERGEN ADMINISTRAZIOKO ESTATUKO AGENTZIAK EDO FORU OGASUNAK EMANDAKO ALDEKO ZIURTAGIRIA; BERTAN GENERIKOKI ADIERAZIKO DA ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO KONTRATUEN ARAUDIKO 13. ARTIKULUAN EZARRITAKO BALDINTZAK BETETZEN DIRELA.

C.- JARDUERA EKONOMIKOEN GAINKO ZERGA.

Zerga ordaintzera behartuta badago, esleipendunak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren alta ere aurkeztu beharko du, jatorrizkoa edo kopia konpultsatua, betiere bere jarduera zerga horri lotuta badago. Hartara, alta hori proposamena aurkeztu duen egunean gauzatzen duen jarduerarena izango da, eta indarreko urtekoa aurkeztuko du. Dena den, azken ordainagiria ere aurkez dezake, eta horrekin batera, zerga horretan baja eman ez duela ziurtatzen duen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du.

Zerga ordaintzetik salbuetsita dauden subjektu pasiboek erantzukizunpeko aitortpena aurkeztu beharko dute, eta bertan azaldu zergatik dauden salbuetsita. Tokiko Ogasunei buruzko Foru Arauaren (ekainaren 30eko 6/1989) 5. artikuluan aipatzen diren salbuespenen bat betetzen badute, salbuetsita daudela frogatzen duen ebazpena ere aurkeztu beharko dute.



DERIOKO UDALA

2017-CAD-2

Enpresen aldi baterako elkarteek eta taldeek zergan alta eman dutela frogatu beharko dute, baina horrek ez ditu elkartea edo taldea osatzen duten enpresak salbuetsiko bakoitzari dagozkion zerga-betebeharrak betetzetik.

D.- GIZARTE SEGURANTZAREN DIRUZAINTZAK EMANDAKO ALDEKO ZIURTAGIRIA; BERTAN GENERIKOKI ADIERAZIKO DA ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO KONTRATUEN ARAUDIKO 14. ARTIKULUAN EZARRITAKO BALDINTZAK BETETZEN DIRELA.

E.- BEHIN BETIKO BERMEA JARRI DELA FROGATZEN DUTEN AGIRIAK, plegu honetako VI., VII. eta VIII. eranskinetako erduei jarraikiz.

F.- ASEGURU-ERAKUNDEAREN ZIURTAGIRIA; HORREN BITARTEZ FROGATUKO DA KONTRATISTAK SINATUTAKO ASEGURU-POLIZA(K) INDARREAN DAGOELA/DAUDELA, KARATULA HONEN 38. ATALEAN EZARRITAKO KONTZEPTU, ZENBATEKO, ESTALDURA, IRAUPEN ETA BALDINTZETARAKO. HORREZ GAIN, DAGOKION POLIZA ETA KONTRATUA INDARREAN EGON DEN EKITALDI GUZTIEI DAGOKIEN URTEROKO PRIMA ORDAINDU IZANAREN ZIURTAGIRIA EDO JUSTIFIKANTEA ERE AURKEZTU BEHARKO DIRA, plegu honetako XIII. eranskineko ereduari jarraikiz.

G.- ESLEIPENDUNA ENPRESARIEN ALDI BATERAKO ELKARTEA BADA, ELKARTEA FORMALIZATU IZANAREN ESKRITURA PUBLIKOA. HALABER, ELKARTEA OSATZEN DUEN ENPRESA BAKOITZAK OGASUNAK/OGASUNEK ETA GIZARTE SEGURANTZAK EMANDAKO ALDEKO ZIURTAGIRIAK AURKEZTU BEHARKO DITU, BAITA JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGARI DAGOZKION AGIRIAK ERE.

H.- ESLEIPENDUNAK HITZEMAN BAZUEN GIZARTE-BAZTERKERIAKO EGOERAN ZEUDEN PERTSONAK KONTRATATUKO ZITUELA, HONAKO HAUEK ERE AURKEZTU BEHARKO DITU ADIERAZITAKO EPEAN: ESKUMENA DUTEN GIZARTE-ZERBITZU PUBLIKOEN TXOSTENAK; TXOSTEN HORIETAN FROGATUKO DA AIPATUTAKO BALDINTZA BETETZEN DELA. HORREZ GAIN, LAN-KONTRATUAK ETA GIZARTE SEGURANTZAKO KOTIZAZIOEN AGIRIAK ERE AURKEZTU BEHARKO DIRA.

I.- KONTRATUA GAUZATZEARI ATXIKIKO ZIZKIOLA HITZEMANDAKO BALIABIDEAK BADITUELA EGIAZTATZEN DUEN DOKUMENTAZIOA, SPKLTBren 64.2 ARTIKULUAREKIN BAT, plegu honetako X. eranskineko ereduari jarraikiz.

Adierazitako agiriak aurkeztu eta behin betiko bermea jarri ondoren, agiriak jaso ondorengo BOST EGUN BALIODUNEKO epean, esleipena egingo da eta horretarako arrazoiak emango dira. Esleipen horren berri emango zaie hautagaiei edo lizitatzaillei, eta kontratatzailearen profileen argitaratuko da. Bertan agertu beharko da SPKLTBren 151.4 artikuluan zehaztutako informazio guztia, kanpoan gelditu den lizitatzailleak edo baztertu egin den hautagaiak behar besteko oinarria duen errekurtsioa jarri ahal izan dezan esleipen-erabakiaren aurka, 40. artikuluari jarraikiz.

Kontratua esleitu ondoren eta errekurtsioak aurkezteko epea amaitu ondoren (ez baldin badu inork batere aurkeztu), proposamenekin batera doazen agiriak interesdunen esku geratuko



DERIOKO UDALA

2017-CAD-2

dira. Interesdunek ez badituzte agiriak jasotzen esleipena jakinarazi eta hiru hilabeteko epean, administrazioak agiri horiek gordetzeko ardura izateari utziko dio.

21. klausula.- Aseguruak.

Kontratistak **karatularen 38. atalean** adierazitako aseguru-polizak sinatu beharko ditu aurrez kontratazio-organoak onetsitako aseguru-enpresekin, atal horretan zehaztutako kontzeptu, zenbateko, estaldura, iraupen eta baldintzetan.

22. klausula.- Kontratua perfektionatzea eta formalizatzea.

a) **Kontratua erregulazio harmonizatuaren mendekoa bada**, kontratua administrazio-agiri bidez formalizatuta perfektionatuko da. Kontratua ezin izango da formalizatu esleipenaren jakinarazpena lizitatzailer eta hautagaiei igorri eta 15 egun balioduneko epea igaro baino lehen.

Kontratazio-organoak esleipendunari eskatuko dio kontratua formalizatzeko gehienez ere 5 egun naturaleko epean, eskakizuna jaso eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, aurreko paragrafoan aurreikusitako epea igaro ondoren, kontratuaren formalizazioa etetea dakarren errekurtsorik jarri ez bada. Modu berean jokatu da errekurtsioa ebazteko eskumena duen organoak etena altxatzen duenean.

Kontratua eskritura publiko bidez formalizatu ahal izango da, kontratistak eskatzen badu, eta eskritura publikoa emateko gastuak berak ordaindu beharko ditu. Kasu horretan, kontratistak administrazioari igorri beharko dizkio aipatutako dokumentuaren kopia legezkatua eta soila, gehienez ere hori formalizatu eta hilabeteko epean.


b) **Kontratua ez bada erregulazio harmonizatuaren mendekoa**, administrazio-agiri bidez formalizatuta perfektionatuko da, gehienez ere lizitatzailer esleipenaren jakinarazpena igorri eta ondorengo 15 egun balioduneko epean, SPKLTBren 151.4 artikuluan ezarritako moduan.

Kontratua eskritura publiko bidez formalizatu ahal izango da, kontratistak eskatzen badu, eta eskritura publikoa emateko gastuak berak ordaindu beharko ditu. Kasu horretan, kontratistak administrazioari igorri beharko dizkio aipatutako dokumentuaren kopia legezkatua eta soila, gehienez ere hori formalizatu eta hilabeteko epean.

LAUGARREN KAPITULUA. KONTRATUA GAUZATZEA.

23. klausula.- Lanen hasiera.

Lanen hasierako data ofiziala hasiera-akta sinatzen den egunaren biharamuna izango da, eta, halakorik egiten ez bada, kontratua formalizatu eta hurrengo eguna.



DERIOKO UDALA

2017-CAD-2

Premiazkotzat jotako espedienteen kasuan, gauzatze-epa administrazioak idatziz ematen duen hasiera-aginduaren datatik hasiko da zenbatzen, eta, halakorik ezean, esleipen-jakinazpena jaso eta kontratistak behin betiko bermea jartzen duen egunaren biharamunetik.

24. klausula.- Kontratuaren arduraduna.

Kontratazio-organoak kontratuaren arduradun bat izendatu ahal izango du; horri egokituko zaio kontratatutako prestazioaren exekuzioa zuzentzea eta ikuskatzea. Horretarako, nola gauzatzen den gainbegiratuko du eta beharrezkoak diren erabakiak hartu eta argibideak emango ditu, hitzartutako prestazioa behar bezala egiten dela bermatze aldera. Kontratuaren arduradunak eta bere lankideek libreki sartu ahal izango dute kontratatutako prestazioa gauzatzen den lekuetara, betiere kontratistak izendatutako pertsona batek lagunduta.

Kontratazio-organoak kasu bakoitzean izendatzen duen ordezkaria **karatularen 29. atalean** zehaztuko da.

25. klausula.- Kontratua betetzea.

Kontratua kontratistaren arrisku eta menturan gauzatuko da.

Kontratua gauzatzean, zehatz-mehatz beteko da Baldintza Teknikoen Pleguan, plegu honetan eta plegu honen **karatularen 4. atalean** ezarritakoaren arabera kontratu-izaera duten gainerako agirietan ezarritakoa. Horrez gain, administrazioaren ordezkariak enpresa kontratistari idatziz ematen dizkion argibide guztiak bete beharko dira, kontratua gauzatzeko eta interpretatzeko moduari buruzkoak.

Hitzartutakoari dagokionez, kontratuaren edozein termino, berau osatzen duten eranskinak edo administrazioak onartutako edonolako argibideak, pleguak eta aginduak ez ezagutzeak ez du enpresa salbuetsiko berau betetzetik.

Kontratista izango da gauzatuko dituen lanen eta emandako prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzule, baita kontratua gauzatzean izandako hutsak, akatsak, metodo desegokiak zein amaiera okerrak direla-eta administrazioari zein hirugarrenei sortutako ondorioen erantzule ere.

26. klausula.- Lan akastunak edo gaizki gauzatuak.

Karatularen 35. atalean ezarritako bermearen epea igaro arte, enpresa kontratistak bere gain hartuko du kontratatutako lanak behar bezala egitearen erantzukizuna, baita horietan dauden akatsena ere. Administrazioaren ordezkariak lan horiek aztertu edo aitortu badituzte horiek egitean edo partzialki egiaztatzean, baloratzean edo ziurtatzean, esleipenduna ez da erantzukizun horretatik salbuetsita egongo eta ez du inolako eskubiderik izango.

Enpresa kontratistak ez du erantzukizunik izango lan akastuna edo gaizki gauzatua administrazioaren agindu baten ondorio zuzena eta berehalakoa bada.



Kontratuaren helburu den prestazioa akatsekin egiten bada, dagozkion zehapenak jarriko dira, baldintza hauetan:

- Prestazioa jasotzean hori gauzatzeko ezarritako preskripzioak betetzen ez badira.
- Arau orokor gisa, zehapena kontratuaren esleipenaren zenbatekoaren % 1ekoa izango da, kontratazio-organoak, behar bezala arrazoituta, ez betetzea larria edo oso larria dela adierazten ez badu; kasu horretan % 5eraino irits daiteke edo % 10eko legeko gehienekoraino, hurrenez hurren. Ez betetzea behin eta berriro gertatzen bada, larritasuna baloratzeko kontuan hartu ahal izango da.
- Edonola ere, zehapenak jartzeak ez du esan nahi kontratistak ez duenik bete behar akatsak konpontzeko betebeharra, legez dagoen moduan.

27. klausula.- Kontratua betetzeko epea.

Kontratistak kontratua bete behar du kontratu-dokumentuan hori gauzatzeko ezarritako guztizko epearen barnean, baita hori gauzatzeko ondoz ondoko epe partzialen barnean ere.

Kontratista berandutu egin dela ulertzeko, ez da beharrezkoa izango aldez aurretik administrazioak agintzea.

Kontratua gauzatzean gertatzen diren atzerapenentarako, bi kasu hauek bereizi behar dira:

- a) Kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, berandutu egin bada guztizko epea edo epe partzialak betetzean (epe partzialak ez betetzeak pentsaraz badezake guztizko epea ezin izango dela bete), administrazioak aukeratuko du kontratua bertan behera utzi edo eguneroko zehapenak jarri. Zehapen horiek kontratuaren prezio osoaren 1.000 euroko 0,20 eurokoak izango dira, **plegu honen karatularen 33. atalean** beste zehapen batzuk ezarri ezean.

Zehapenak gauzatzeko, zenbateko horiek kenduko zaizkie kontratistari ordaindu behar zaizkion zenbatekoei (ordainketa oso edo partzialaren kontzeptuan) edo, hori ezinezkoa denean, kontratistak jarri duen bermeari, hala badagokio.

- b) Atzerapena kontratistari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik gertatzen bada, eta hark hala ere adierazten badu bere konpromisoak beteko dituela (adierazi zaion denbora-luzapena emanda), administrazioak epe bat emango dio horretarako. Epe horrek galdutako denboraren berdina izan beharko du gutxienez, kontratistak epe laburragoa eskatu ezean.

28. klausula.- Kontratistari egin beharreko ordainketak eta ordainketak egiteko epea.

Esleipendunak eskaintako eta administrazioak jasotako zerbitzuengatik dagokion prezioa jasotzeko eskubidea izango du.

Jasotze-ekintzaren egunetik aurrera zenbatzen hasi eta hilabeteko epean erabaki beharko da kontratuaren likidazioa, eta kontratistari jakinarazi beharko zaio. Gainera, hala badagokio, ondoriozko saldoa ordaindu beharko zaio.

Ordainketa **karatularen 30. atalean** ezarritako moduan egingo da.



DERIOKO UDALA

2017-CAD-2

Berandutzearen araubide juridikorako, SPKLTBren 217. artikuluan xedatutakoari helduko zaio.

Kontratistak, halaber, eskubidea izango du ordainketak kontuan jasotzeko, hala badagokio, **karatularen 30. atalean** ezarritako baldintzetan, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 232. artikuluan eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Orokorren (1098/2001 ED, urriaren 12koa) 155., 156. eta 157. artikuluetan zehaztutako araubidearen, mugen eta bermeen arabera.

Kontratistak beste bati laga ahalko dio, legez ezarritako edozein bide erabilita, kontratuaren zenbatekoa kobratzeko eskubidea, baina, lagapen horrek eragina izan dezan eta administrazioak lagapen-hartzailearen aldeko ordainketa egin dezan, ezinbestekoa da lagapen-hartzaileari ematea lagapenaren erabakiaren berri.

29. klausula.- Fakturak.

Esleipendunak aurkezten dituen fakturek plegu honen **karatularen 30. atalean** zehaztutako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

30. klausula.- Prezioak berrikustea.

Prezioak berrikusiko dira, hala badagokio, **karatularen 31. atalean**, kontratu-dokumentuan eta SPKLTBren 89. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera. Edonola ere, ez da berrikusi beharko gauzatutakoaren lehenengo % 20, ezta kontratua formalizatu eta lehenengo urtea ere.

31. klausula.- Laneko eta gizarteko betebeharrak.

Kontratista, esleitutako lana egiteko erabiltzen dituen langileei dagokionez, behartuta egongo da lan, Gizarte Segurantza, minusbaliatuen gizarteratze eta lan arriskuen prebentzio arloan indarrean dagoen araudia betetzera, eta, azken horiei dagokienez, gizarte-prestakuntzaren arlokoak betetzera. Hitzematen du azpikontratutako enpresek, hala badagokie, euren langileei dagokienez lan-arloan indarrean dagoen legeria beteko duela.

Esleipendunak bakarrik ordaindu ahal izango die kontratazioaren helburu den zerbitzua emateko erabiltzen dituen langileei, eta bere gain hartu beharko ditu, halaber, horien gizarte-eta/edo lan-kostu guztiak, indarreko legeria eta dagozkion hitzarmenak betez. Derioko Udalak ez du kontratistaren eta bere langileen arteko harremanen gaineko inolako erantzukizunik izango.

Kontratua amaitzen denean, kontratuaren xede diren lanak egin dituzten pertsonak ezingo dira inola ere finkatu erakunde, organismo edo sektore publikoko entitate kontratatzaileko langile gisa.

Kontratazioaren helburu den zerbitzuari eragiten dion laneko grebaren kasuan, esleipendunak konponbideak eman beharko ditu eskumeneko administrazioak ezartzen dituen gutxieneko zerbitzuak bermatzeko, kontratazio-organoak eskatuta eta hark zehazten dituen epe eta moduan. Esleipendunak konponbiderik ematen edo gauzatzen ez badu, kontratuaren zuzendaritzak onartutako gutxieneko zerbitzuak betetzeko beharrezkoak diren kontratuak



sustatu ahal izango ditu. Horiek esleipendunaren kontura egingo dira, eta horien zenbatekoa bere fakturaziotik kenduko da. Hirugarrenengandik kontratatutako lan horien erantzukizuna esleipendunarena izango da, plegu honetan ezartzen diren ondore guztietarako.

32. klausula.- Bitarteko materialak eta pertsonalak.

Kontratatistak, zerbitzua edo prestazioa gauzatzeko, behar bezala eta kontratuan hitzartutako epeetan gauzatzeko beharrezkoa den ekipamendua eta baliabide osagarriak izateko eta mantentzeko betebeharra izango du, eta, bereziki, kontratua gauzatzeko pertsona arduradunen zerrendan sartuta daudenek.

Enpresako langileak berariaz enpresa kontratistaren mende egongo dira, eta horrek baino ez ditu izango, enplegu-emaille den heinean, hortik eratorritako eskubideak eta betebeharrak.

Gutxienez bere plantillan sartutako koordinatzaile tekniko edo arduradun bat izendatu beharko du, eta horrek, besteak beste, honako funtzio hauek izango ditu:

- a) Enpresa kontratistaren langileek administrazioari kontratuaren exekuzioa dela-eta egin beharreko edozein jakinarazpen jaso eta igortzea.
- b) Enpresaren lan-betebeharrak betetzen direla kontrolatzea; bereziki, langileak lantokira joatearen eta langileek oporrak hartzearen arloan, kontratuaren xede den zerbitzuaren eskaintza eten ez dadin.
- c) Kontratua gauzatzeko atxikita egoteari uzten dioten kontratistaren langileen berri ematea administrazioari.

Kontratatistak bere lan-egitasmoan adieraziko ditu kontratua gauzatzeko izendatzea aurreikusten dituen pertsonen izenak; horiek administrazioak eskatutako betebeharrak bete beharko dituzte. Halaber, bere lan-egitasmoan aurkeztu beharko du kontratu hau gauzatzeko izendatutako langile bakoitzari ordainduko dion soldataren zenbatekoen (euro/ordu) zerrenda; administrazioak edozein unetan eskatu ahal izango dio izendatutako langile bakoitzak jasotzen duen soldataren zenbatekoen (euro/ordu) ziurtagiriak aurkezteko.

Enpresa kontratatistak ezin izango ditu bere eskaintzan ezarritako langileak ordezkatu, administrazioak berariaz baimentzen ez bada.

Administrazioak desagokitzat jotzen dituen elementu guztiak baztertu ahal izango ditu. Enpresak, erabaki hori ikusirik, erreklamazioa jarri ahal izango dio administrazioari, HAMAR (10) EGUN NATURALEKO epean, administrazioak idatziz egiten dion jakinarazpena jasotzen duenetik zenbatzen hasita.

33. klausula.- Kontratua gauzatzeko hizkuntza-baldintzak.

Kontratu honen xede diren emaitzak (ikerketak, txostenak, proiektuak, etab.) bi hizkuntza ofizialetan egin beharko dira, baldin eta:

- Emaitza osoa edo horren zati bat herritarren artean zabalduko dela aurreikusten bada.
- Kontratuaren helburuaren hartzaileak haurrak edo gazteak badira.



DERIOKO UDALA

2017-CAD-2

Halaber, kontratuaren helburu den emaitza gauzatzeko herritarrekin harreman zuzena eskatzen duten jarduerak egin beharko balira, herritarrak aukeratzen duen hizkuntza ofiziala erabili beharko da; beraz, harreman horren oinarrian dauden euskarri eta jarduera guztietan (inkestak, galdeketak, eztabaida-taldeak, etab.) bi hizkuntza ofizialak erabiltzen direla bermatu beharko da. Horretarako, herritarrekin harreman zuzena eskatzen duten eginkizun horiek betetzeko, kontratistak edo azpikontratistak beharrezko langile kopurua jarri beharko du, eginkizun horiek euskaraz egin ahal izan daitezen.

Era berean, euskara eta gaztelania berdin-berdin erabiliko dira kontratuaren xede diren jarduerari lotutako esku-hartze publikoetan.

34. klausula.- Lantaldean desgaitasunen bat duten langileak izatera behartuta dauden enpresak.

Aipatutako betebeharra bere gain hartzeko, eskaintza ekonomikorik onuragarriena aurkeztu duen lizitatuak erantzukizunpeko adierazpen bat egin beharko du, plegu honen **XI. eranskinean** datorren ereduaren arabera. Horretarako epea plegu honen **karatularen 27. atalean** adierazten dena izango da, SPKLTBren 151.2 artikuluan aipatzen den eskakizuna jaso eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.


Era berean, kontratistak aipatutako betebeharra betetzen duela egiaztatu beharko du kontratazio-organoaren aurrean, hala eskatzen bazaio. Eskakizuna edozein unetan egin ahal izango zaio kontratuak dirauen bitartean, edo, nolana ere, behin betiko bermea itzuli aurretik. Betebehar hori betetzen dela egiaztatzeko, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu kontratazio-organoaren aurrean: enpresako langileen kopurua zehazten duen enpresako ziurtagiria eta desgaitasunen bat duten langileekin eginiko kontratuen kopia konpultsatua.

35. klausula.- Kontratua gauzatzeko beste baldintza berezi batzuk.

1. Langabeziaren eragina bereziki jasaten duten taldeen enplegua sustatzeko baldintzak.

Kontratua gauzatzeko langile berriak kontratatzerakoan, enpresa kontratistek lehentasuna emango diete legearen arabera langabezian dauden pertsoneri, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak (Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren Testu Bategina onesten duena) ezarritakoari jarraikiz. Hala, egin beharreko lanaren ezaugarri zehatzak direla eta horrela egitea ezinezkoa dela frogatu den kasuetan salbu, kontratistek bermatuko dute kontratazio berrien % 15 gutxienez aipatutako kolektiboetako pertsoneri egingo zaiela.

Kontratistak egiaztatu egin beharko ditu kontratuaren exekuzioaren baitan egindako langileen kontratazio berriak, bai eta langabeziak bereziki jotako kolektiboetako pertsoneri dagozkien kontratazio berriak ere. Horretarako, honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu: izen-abizenak, NANA eta Gizarte Segurantzaren alta emanda eta afiliatuta dagoela egiaztatzen duen dokumentua.



DERIOKO UDALA

2017-CAD-2

Kontratazio-betebehar hori alde batera utz daiteke kontratuaren esleipenak langileak subrogatzea dakarrenean eta kontratu berriak kontratazio gehiago egiteko beharrik ez dakarrenean.

Eskatutako dokumentazioa aurkezten ez bada, edo legearen arabera langabezian dauden pertsonak kontratatzeko betebeharra betetzen ez bada (baldintzan ezarritako moduan), kontratua hautsi egin dela ulertuko da, eta kontratuaren aurrekontuaren % 10era arteko zehapena jarriko da.

2. Gizarte-bermerako baldintzak.

a) Lan-baldintzak betetzeko baldintzak.

Enpresa kontratistak lan-arloko, Gizarte Segurantzako eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko indarreko xedapen guztiak bete behar ditu; bereziki, gauzatu beharreko prestazioek laneko ordenantza edo hitzarmen kolektibo bati jarraitzen diotenean. Kasu horretan, kontratistak nahitaez bete behar ditu dagozkion laneko ordenantzan eta hitzarmen kolektiboan ezarritako xedapenak.

Enpresa esleipendunak egiaztatu behar du, dagozkion erantzukizunpeko adierazpenen bidez edo, hala dagokionean, eskumeneko erakundeen ziurtagirien bidez, kontratua gauzatzean bete egin direla lanpostuen babeserako, lan-baldintzak ezartzeko eta laneko arriskuak prebenitzeko indarreko xedapenetatik eratorritako betebeharrak.


Betebehar horiek hausteak kontratua haustea dakar, eta, beraz, kontratuaren aurrekontuaren % 10era arteko zehapena jarri ahal izango da.

b) Laneko harreman indibidualen eta kolektiboen arloko araudia betetzeko baldintzak.

Enpresa kontratistak abuztuaren 4ko 51/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Gizarte Arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen 6. edo 7. artikuluetan ezarritako laneko harremanen arloko arau-hausteren bat egiten badu kontratua gauzatzean eta eskumeneko agintaritzak zigortu egiten badu administrazio-bideko zehapen irmo bidez, ulertuko da kontratua hautsi egin dela. Ondorioz, kontratuaren aurrekontuaren % 5era arteko zehapena jarriko zaio, arau-haustea arina bada (6. artikulua), edo % 10era artekoa, arau-haustea larria bada (7. artikulua).

Gizarte Arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen 8. artikuluan tipifikatutako arau-hauste oso larri bat egiten bada kontratua gauzatu bitartean, ulertuko da kontratuaren oinarritzko baldintza bat hautsi dela; hala, administrazio-bidetik emandako zehapena irmoa denean, kontratua bertan behera geldituko da.

Halaber, kontratistak kontratua gauzatu bitartean laneko arriskuen prebentzioaren arloan jasotako edozein motatako zehapenen berri emango dio kontratistari, unean-unean. Horrez gain, zehapen horien aurka jarritako errekurtsioak eta emandako ebazpenak ere jakinaraziko dizkio.



Informazio-betebehar hori hautsiz gero, kontratuaren funtsezko baldintza bat hautsi dela ulertuko da, eta zehapena irmoa denean, kontratistari kontratua bertan behera utziko zaio.

c) Laneko arriskuen prebentzioaren arloko araudia betetzeko baldintzak.

Abuztuaren 4ko 51/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen 11. eta 12. artikuluetan tipifikatutako laneko arriskuen prebentzioaren arloko arau-hausteren bat egiten bada kontratua gauzatu bitartean, arlo horretan eskumena duen agintaritzak enpresa kontratista zigortuko du, administrazio-bidearen bidezko zehapen irmoaren bitartez. Zigor hori jasotzeak esan nahi du kontratua ez dela bete, eta honako zehapen hauek jasoko ditu enpresak: kontratuaren aurrekontuaren % 5era arte, zehapena arau-hauste arin bati badagokio (11. artikulua); edo % 10era arte, zehapena arau-hauste larri bati badagokio (12. artikulua).

Gizarte Arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen 13. artikuluan tipifikatutako arau-hauste oso larri bat egiten bada kontratua gauzatu bitartean, ulertuko da kontratuaren oinarrizko baldintza bat hautsi dela; hala, administrazio-bidetik emandako zehapena irmoa denean, kontratua bertan behera geldituko da.

Halaber, kontratistak kontratua gauzatu bitartean laneko arriskuen prebentzioaren arloan jasotako edozein motatako zehapenen berri emango dio kontratistari, unean-unean. Horrez gain, zehapen horien aurka jarritako errekurtsioak eta emandako ebazpenak ere jakinaraziko dizkio. Informazio-betebehar hori hautsiz gero, kontratuaren funtsezko baldintza bat hautsi dela ulertuko da, eta zehapena irmoa denean, kontratistari kontratua bertan behera utziko zaio.

3. Emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako baldintzak.

Kontratistak bermatu egingo du kontratua gauzatzeko erabilitako publizitateak, irudiek edo materialek ez dutela hizkuntza sexista erabiltzen, eta saihestu egingo dira emakumeak diskriminatzen dituzten irudiak edo estereotipo sexistak; berdintasun-balioak, gizonen eta emakumeen presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna eta rol- nahiz genero identitate-aniztasuna bultzatuko dira.

Kontratistak printzipio eta betebehar jakin batzuk bete beharko ditu, hain zuzen ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren Legeak (otsailaren 18ko 4/2005 Legea) eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako Lege Organikoak (martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa) ezartzen dituztenak.

250 langile baino gehiago dituzten enpresa kontratistek egiaztatu beharko dute emakumeen eta gizonen berdintasunerako plan bat badutela, eta plan horrek Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako Lege Organikoan (martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa) ezarritako edukia barne hartzen duela.

4. Azpikontratistei egin beharreko ordainketak betetzeko baldintzak.



DERIOKO UDALA

2017-CAD-2

Kontratatik kontratuan parte hartzen duten azpikontrastei edo hornitzaileei zor dizkien ordainketak egiteko epeak bete beharko ditu. Epe horiek SPKLTBren 228. artikuluan daude ezarrita.

Udalak egiaztatu ahal izango du kontratatik azpikontrastea edo hornitzaile guztiei egin beharreko ordainketak zehatz-mehatz betetzen diren ala ez. Kasu horretan, kontratuaren arduradunak hala eskatzen badu, kontratatik azpikontrastei edo hornitzaileei ordaindu diela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko du haiek prestazioa amaitu ondoren.

36. klausula.- Kontratuaren aldatzea.

1. Kontratuaren perfektzionatu ondoren, interes publikoko arrazoiengatik bakarrik aldatu ahal da, baldin eta hala aurreikusi bada; hala aurreikusi ez den kasuetan, legeak zehazten dituen egoeretan bakarrik aldatu ahal da. Hau da:

A) Aurreikusitako aldaketak:

Kontratuaren aldatu ahal izango da, baldin eta **karatularen 36. artikuluan** aukera hori ezartzen badu eta argi, zehatz eta zalantzarik gabe zehaztu badira aldaketaren hori egiteko baldintzak, baita adostu daitezkeen aldaketaren irismena eta mugak ere. Horrez gain, berariaz zehaztu beharko da aldaketak gehienez kontratuaren prezioaren zenbateko portzentajeari eragin ahal izango dion, SPKLTBren 106. artikuluan arabera.

B) Aurreikusi gabeko aldaketak:

Kontratuak soilik aldatu ahal izango dira SPKLTBren 107. artikuluan ezarritako baldintzak eta mugak betetzen badituzte.


2. SPKLTBren 306. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, mantentze-zerbitzuen kontratuaren aldatzearen ondorioz mantendu beharreko ekipoak areagotu, murriztu edo kendu behar badira, edo ekipo batzuk beste batzuekin ordeztu behar badira (baldin eta kontratuak hala ezartzen badu), aldaketaren horiek nahitaezkoak izango dira kontratistarentzat. Ekipoen unitateak edo motak kentzen edo murrizten badira, esleipendunak ez du inolako eskubiderik izango horren ondoriozko kalte-ordainik eskatzeko.

3. Aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistarentzat, horri entzunaldia eman ondoren adostuko dira eta administrazio-dokumentu bidez formalizatu beharko dira, behin betiko bermea doitu baino lehen, hala badagokio.

37. klausula.- Kontratuaren bertan behera uztea.

Baldin eta administrazioak kontratuaren bertan behera uztea erabakitzen badu, edo SPKLTBren 216. artikuluan ezartzen dena aplikatzeagatik geratu bada bertan behera, akta bat egin behar da egoera sorrarazi duten inguruabarrak jasotzeko, eta kontratuaren exekuzioa zein egoeratan geratu den agertzeko.

38. klausula.- Kontratuaren exekuzioa bitartean kontratatutako enpresa beste enpresa batek ordezkatzeko.



DERIOKO UDALA

2017-CAD-2

Sozietate kontratistak parte hartzen duen enpresen bat-egiteetan, erakunde bereganatzailearekiko edo bat-egitearen ondorioz sortzen denarekiko kontratuak indarrean jarraituko du, eta horri subrogatuko zaizkio bat-egitetik sortzen diren eskubide eta betebeharrak guztiak. Era berean, enpresak edo horien jarduera-adarrak bereizten, eransten edo transmititzen diren kasuetan, horietatik sortutako erakundearekiko edo onuradunarekiko kontratuak indarrean jarraituko du. Erakunde edo onuradun horrek bere gain hartu beharko ditu, subrogatuta, sortzen diren eskubide eta betebeharrak guztiak, baldin eta esleipena adostean ezarritako kaudimena badu.

39. klausula.- Konfidentziasuna.

Kontratua gauzatzeko enpresa kontratistak eskuragarri duen informazio guztia konfidentziala izango da. Kontratistak eta kontratua betetzeko horrek izendatutako langileek ezin izango dute kontratatutako lanei buruzko informazioa zein datuak, edo lana betetzeko eskuratu ahal dutena, euren onerako zein hirugarrenei emateko erabili, administrazioaren baimen idatzirik ez badute. Beraz, behartuta daude euren esku dauden bitarteko guztiak jartzera informazio guztiaren zein egindako lanetik lortutako emaitzen konfidentziasuna gordetzeko (SPKLTBren 140. artikulua). Nolanahi ere, datu pertsonalak erabili behar ez diren lanetan enpresak eta bere langileek debekatuta dute datu pertsonal horiek eskuratzea, eta isilpean mantendu beharko dituzte prestazioa ematean eskuratu ahal izan dituzten datuak.

40. klausula.- Datu pertsonalen tratamendua.

Datu pertsonalen tratamendutzat hartuko dira datuak biltzea, grabatzea, kontserbatzea, egitea, aldatzea, blokeatzea eta baliogabetzea ahalbidetzen duten eragiketa eta prozedura tekniko guztiak, automatizatuak izan edo ez; baita jakinarazpenetatik, kontsultetatik, interkonexioetatik eta transferentzietatik ateratzen diren eta pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri eragiten dieten datuen konexioak ere.

Kontratua gauzatzeko datuak tratatu behar badira edo enpresa kontratistak edo azpikontratistak halako datuak eskuratu behar baditu, SPKLTBren seigarren xedapen gehigarrian zehaztutakoa beteko da, baita honako arau hauek ere:

1. Kontratistak tratamenduaren arduradunaren argibideei jarraikiz bakarrik tratatuko ditu datuak.
2. Tratamenduaren xede diren datu pertsonalak soil-soilik erabiliko dira kontratuaren helburua betetzeko, eta ezin izango dira helburu hori ez den beste edozertarako erabili.
3. Kontratu honen ondorioz tratatutako datu pertsonalik ez zaie helaraziko hirugarrenei. Horretarako, kontratistak konpromisoa hartzen du datu horiek edo horiekin sortutako fitxategiak hirugarrenei ez jakinarazteko, transferitzeko, lagatzeko edo komunikatzeko, ez ahoz ez idatziz, ezta bitarteko elektronikoak, papera edo sarbide informatikoa erabiliz ere (ezta ikusteko ere).
4. Kontratistak eta kontratuaren helburu den prestazioan parte hartzen duten langile guztiek bete egin beharko dute Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko Lege Organikoaren (abenduaren 13ko 15/1999) 10. artikuluan ezartzen den sekretu-eginbearra. Eginbearra



horrek indarrean jarraituko du kontratua amaitu ondoren ere, kontuan hartu gabe kontratua bete delako edo bertan behera utzi delako amaitu den.

5. Kontratatik hitzemandu du Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko Lege Organikoak (abenduaren 13ko 15/1999) ezartzen dituen teknika-, administrazio- eta antolamendu-neurriak hartuko dituela. Neurri horiek beharrezkoak dira kontratu honen helburu diren lanak egiteko tratatu behar diren datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko.
 - a) Ildo horretan, enpresak datu pertsonalak eskuratu ahal izango dituzten langile guztien zerrenda bat emango dio kontratazio-organoari, lanekin hasi baino lehen. Zerrenda horretan agertuko dira langile horien izen-abizenak, zereginak eta lantokia. Kontratua gauzatzen den bitartean beharrezkoa bada langile gehiago hartzea edo lehendik daudenei baja ematea, enpresa esleipendunak beste zerrenda bat entregatuko du, aldaketa gertatu den unetik zenbatzen hasita eta gehienez ere astebeteko epean. Bai enpresa esleipendunak bai zerrenda horietan agertzen diren langileek formalki hitzeman beharko dute, idatziz, tratatutako datuen sekretu profesionala gordeko dutela.
 - b) Enpresa esleipendunak bere gain hartuko du plegu honen karatulan zehazten diren tratamendu-zentroetako, lokaletako, ekipoetako, sistemetako eta programetako segurtasun-neurriak ezartzeko betebeharra.
 - c) Kontratuaren helburu den prestazioa amaitu ondoren, euskarri guztiak itzuli egin beharko dira, edo esleipendunak datu pertsonalak barne hartzen dituzten fitxategi guztiak suntsitu edo ezabatu beharko ditu. Suntsiketa horri ezin izango zaio inolako berreskuratze-prozesurik aplikatu. Fitxategiak itzuli edo suntsitu direla ziurtatzeko, enpresa esleipenduneko ordezkariak eta ezaugarri horiek dituzten lanen zuzendariak sinatutako akta bat entregatuko da.

41. klausula.- Lanen jabetza.

Hala badagokio, kontratu hau gauzatzerakoan egindako azterlan eta bestelako agiriak Derioko Udalarenak izango dira; horrek erreproduzitzeko, argitaratzeko eta zabaltzeko eskubidea izango du (guztiz edo zati batean), eta esleipendunak eta lanen egileek ezingo dute horren aurka agertu.

Esleipendunak ezin izango du kontratu hau gauzatzeko egindako azterlanik eta dokumenturik erabili edo zabaltu, ez osorik ez zati batean, ez zuzenean edo laburtuta ere. Horretarako, kontratazio-organoaren berriazko baimena behar izango du.

Jabetza intelektual edo industrialeko eskubide baten babespean dauden produktuak garatzea eta eskuragarri jartzea helburu duten kontratuetan, eskubide hori Derioko Udalaren esku geratuko da nahitaez. Edonola ere, jabetza industrialeko eskubideen lagapena alde batera uzten denean ere, produktu hori erabiltzeko baimena eman ahal izango zaie SPKLTBren 3.1 artikulua aitazten dituen sektore publikoko erakunde, organismo eta entitateei.

BOSGARREN KAPITULUA.- KONTRATUA IRAUNGITZEA.



DERIOKO UDALA

2017-CAD-2

Kontratua iraungiko da betetzen denean edota bertan behera uzten denean.

42. klausula.- Kontratua betetzea.

Kontratua kontratistak bete duela ulertuko da prestazioa oso-osorik eman duenean, bertan ezarritako baldintzen arabera eta administrazioa gustura utzita.

Harrera.

Lanak egiaztatzeko, beharrezkoa da administrazioak aldeko harrera- edo adostasun-egintza formala egitea (harrera-akta), kontratuaren helburua entregatu edo egin ondorengo hilabetean, baldin eta besterik zehaztu ez bada plegu honen karatulan.

Egindako lana kontratatutako prestazioarekin bat ez datorrela ikusten bada, argibide zehatzak eman beharko zaizkio enpresari, idatziz, ikusitako akatsak edo gabeziak zuzen ditzan. Idatzi horretan zuzenketak egiteko epe bat ezarriko da.

Enpresa kontratistak oharrei buruzko erreklamazioren bat egiten badu, kontratazio-organoak ebatziko du.

Enpresak oharrei buruzko erreklamazio idatzirik egiten ez badu, horiekin ados dagoela ulertuko da, eta ikusitako akatsak zuzendu edo konpondu beharko ditu.

Ez da harrerarik egingo argibide horiek bete arte; orduan, dagokion akta egingo da.

Zuzenketak egiteko epea igaro eta zuzenketa behar bezala egin ez bada, administrazioak uko egingo dio harrerari, eta ez du ordaintzeko betebeharririk izango. Eskubidea izango du, halaber, ordaindutako zenbatekoa berreskuratzeko.

Edonola ere, egindako lanak ez badatoz bat kontratatutako prestazioarekin, eta horren erantzukizuna ezin bazaio administrazioari egotzi, kontratazio-organoak harrerari uko egin ahal izango dio, eta ez du ordaintzeko betebeharririk izango. Eskubidea izango du, halaber, ordaindutako zenbatekoa berreskuratzeko.

Enpresa kontratistak eskubidea izango du kontratatutako prestazioa betetzearen inguruan egiten diren oharrek ezagutzeko eta berari entzuteko.

Kontratuaren likidazioa.

Harrera- edo adostasun-aktaren egunetik aurrera zenbatzen hasi eta hilabeteko epean erabaki beharko da kontratuaren likidazioa, eta kontratistari jakinarazi beharko zaio. Gainera, hala badagokio, ondoriozko saldoa ordaindu beharko zaio.

43. klausula.- Bizioak eta akatsak bermealdian zehar.

Karatularen 35. atalean ezarritako epea, hala badagokio, harreraren edo adostasunaren datatik aurrera zenbatuko da.

Alabaina, bermealdian hutsak edo akatsak sumatuko balira egindako lan edo zerbitzuetan, kontratazio-organoak eskubidea izango du kontratistari akatsok konpon ditzala eskatzeko.



DERIOKO UDALA

2017-CAD-2

Kontratastak kontratazio-organoak ezarritako epean hutsegiteak konpontzen ez baditu, horrek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean (urriaren 1eko 39/2015 Legea) indarrez gauzatzeko ezarri diren baliabideak erabili ahal izango ditu.

Bermealdia amaituta, administrazioak aurreko ataletan adierazitako eragozpen edo uko-egiteren bat formalizatu ez badu, kontratista erantzukizunetik salbuetsita egongo da gauzatutako prestazioa dela eta, obra egitasmoak gauzatzea xede duten kontratuetak akatsak konpontzeari eta erantzukizunari buruzko SPKLTBaren 310., 311. eta 312. artikuluetan ezarritakoaren kalterik gabe.

Kontratastak eskubidea izango du kontratatutako prestazioa betetzearen inguruan egiten diren behaketak ezagutzeko eta berari entzuteko.

44. klausula.- Bermea baliogabetzea eta itzultzea.

Ez da bermea itzuli edo ezeztatuko bermealdia amaitu eta kontratua behar bezala bete arte, edo kontratua bertan behera utzi arte (kontratastak inolako errurik izan gabe).

Kontratuaren likidazioa onartu eta ezarritako bermealdia igaro ondoren erantzukizunik sortu ez bada, jarritako bermea itzuli egingo da edo abala edo kauzio-asegurua ezeztatu egingo da.

Kontratuak lagatzen diren kasuetan, ez da lagatzaileak jarritako bermea itzuliko edo ezeztatuko lagapen-hartzailearena formalki eratzen den arte.

45. klausula.- Kontratuaren ezeztatzea.

Kontratuaren ezeztatzea denean iraungiko da, baina baita ezeztatzen denean ere, hala adosten bada, plegu honen **karatularen 37. atalean** eta hurrengoetan zehaztutako kausa hauek direla medio:

- a) Kontratista pertsona partikularra bada, haren heriotza edo ezgaitasuna, eta kontratista sozietatea bada, nortasun juridikoa azkentzea, 85. artikuluan aurreikusitakoari kalterik eragin gabe.
- b) Beste edozein prozeduratan hartzekodunen konkurtsoa edo kaudimengabezia deklaratzeko.
- c) Administrazioa eta kontratista ados jartzea.
- d) Kontratista atzeratzea epeak betetzean, eta SPKLTBren 112. artikuluko 2. zenbakiko c) letran ezarritako epea ez betetzea.
- e) Kontratuaren hasiera etetea, administrazioari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, sei hilabete baino gehiagotan, kontratuan bertan horri ekiteko adierazitako epetik zenbatzen hasita.
- f) Kontratuari uko egitea edo urtebete baino gehiagoz etetea, administrazioak hala erabaki duelako.
- g) Administrazioa ordainketan atzeratzea, SPKLTBren 216. artikuluko 6. atalean ezarritako epea baino gehiago, edo **karatulako 30. atalean** ezarritakoa baino gutxiago.



- h) Plegu honen, kontratuaren edo karatulako dagokion atalaren arabera funtsezkoak diren gainerako kontratu-betebeharrak ez betetzea.
- i) Prestazioa hasiera batean hitzartutako baldintzetan gauzatu ezin izatea edo prestazioa baldintza horietan gauzatzen jarraituz gero interes publikoari kalte larria eragiteko aukera egotea, kontratua aldatzea ezinezkoa denean, I. liburuko V. tituluaren ezarritakoaren arabera.
- j) Kontratuan berariaz ezarritakoak.
- k) Nolanahi ere, 303.2 artikulua aipatzen dituen kontratu osagarriak bertan behera geratuko dira kontratu nagusia bertan behera geratzen denean.

Kontratua bertan behera uzteko kausak eta horren ondorioak SPKLTBren 224., 225. eta 309. artikuluetan ezarritakoak izango dira.

46. klausula.- Kontratuen lagapena eta azpikontratazioa.

Kontratuen lagapena.

Kontratuak berekin dakartzan eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga diezazkioke esleipendunak, baldin eta lagatzailearen ezaugarri tekniko edo pertsonalak ez badira kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarri izan, eta SPKLTBren 226. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badira.

Lagapen-hartzailea subrogatuta geldituko da lagatzailearen eskubide eta betebeharrak guztiei dagokienez.

Azpikontratazioa.


Kontratua zuzenduko duten azpikontratazioaren arloko arau espezifikoak plegu honen **karatularen 32. atalean** zehaztuko dira, hala badagokio.

Kontratastak prestazioaren zati bat hirugarrenei eman diezaike, haiek egiteko, kontratuak edo **karatularen 32. atalak** kontrakoa ezarri ezean. Ezin izango da hori egin, halaber, kontratuaren izaera eta baldintzengatik ulertzen denean esleipendunak egin behar duela zuzenean.

Plegu honen **karatularen 32. atalean** inolako mugarik agertzen ez bada, kontratastak lanak azpikontratatu ahal izango ditu, gehienez ere esleipenaren zenbatekoaren 100eko 60ko portzentajera arte. Gehieneko portzentaje hori zenbatzeko, ez dira kontuan hartuko kontratista nagusiari lotutako enpresekin eginiko azpikontratuak, alegia, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituztenak.

Azpikontratuak egiteko, SPKLTBren 227. artikuluan ezarritako arauak bete beharko dira. Edonola ere, esleipendunak alde aurretik eta idatziz jakinarazi beharko du azpikontratuak egiteko asmoa duela. Agiri horretan adierazi beharko du prestazioaren zer zati azpikontratatu nahi duen eta kontratastaren nortasuna; horrez gain, kontratastak prestazioa gauzatzeko gaitasuna duela justifikatu beharko du.

Azpikontratastak kontratista nagusiaren aurrean bakarrik izango dituzte betebeharrak; beraz, esleipendunak bere gain hartuko du kontratua gauzatzearen erantzukizun osoa administrazioaren aurrean.



DERIOKO UDALA

2017-CAD-2

Kontratistak SPKLTBren 227. artikuluan ezarritako azpikontratatzeko baldintzak edo **karatularen 32. atalean** azpikontratatzeko ezar daitekeen gehieneko muga berezia betetzen ez baditu, zehapena ezarriko zaio, gehienez ere azpikontratuaren zenbatekoaren ehuneko 50ekoa.

SEIGARREN KAPITULUA. PRIBILEGIOAK, ERREKURTSOAK ETA BALIOGABETASUN-ESKEA.

47. klausula.- Administrazioaren pribilegioak.

Kontratazio-organoak administrazio kontratuak interpretatzeko eta berau betetzeko sor daitezkeen zalantzak ebazteko pribilegioa du. Era berean, interes publikoko arrazoiak direla eta, kontratuak aldatu eta horiek bertan behera gera daitezela adostu ahal izango du, baita horren ondorioak zehaztu ere; betiere, mugen barnean eta indarreko legerian zehaztutako eskakizunak eta ondorioak bere gain hartuz.

Kontratazio-organoak interpretazio-, aldaketa- eta ebazpen-pribilegioak baliatuz ematen dituen ebazpenak berehala gauzatuko dira.

48. klausula.- Kontratazioaren arloko errekurtsio berezia.

Kontratazioaren arloko errekurtsio berezia jaso dezaketen kontratuei dagokienez, administrazio-errekurtsio berezia jarri ahal izango da, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa baino lehen, SPKLTBren 40. artikuluan zerrendatutako egintzen aurka.

Administrazio-errekurtsio berezia hautazkoa izango da eta berau ezartzeko epea HAMABOST (15) EGUN BALIODUNEKOA izango da, SPKLTBren 44. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.


Errekurtsioaren idazkia nahitaez aurkeztu beharko da kontratazio-organoaren erregistroan edo errekurtsioaren ebazpena emateko eskumena duen organoaren erregistroan (Kontratuen inguruko Errekurtsioen Administrazio Organoaren Erregistroa, Donostia 1, 01010 Vitoria – Gasteiz).

Edonola ere, errekurtsioa jarri nahi duen orok horren berri eman beharko du alde zuzenetik, errekurtsioa jartzeko epe berean, kontratazio-organoaren erregistroan aurkeztutako idazki baten bidez (Derio Udalaren Erregistro Orokorra; Herriko Plaza 3, 48160 Derio). Idazki horretan, errekurtsioa jasoko duen prozeduraren egintza zehaztu beharko da.

Errekurtsioaren idazkian hauek jasoko dira: errekurtsioa jarri zaion egintza, errekurtsiogileak erabiliko dituen frogabideak eta, hala badagokio, eskatzen dituen neurriak, SPKLTBren 43. artikuluan adierazitako izaera berekoak.

Idazkiarekin batera, hauek igorriko dira:

- a) Agertutako alderdiaren ordezkapena egiaztatzen duen agiria, organo beraren aurrean jarritako beste errekurtsio baten ekintzei lotuta egon ezean; kasu horretan, egiaztagiria emateko eskatu ahalko da, prozedurara batze aldera.



DERIOKO UDALA

2017-CAD-2

- b) Egilearen legitimazioa egiaztatzen duen agiria edo agiriak, beste norbaitek herentzian edo beste edozein tituluren bidez eman badio.
- c) Errekurtsoa jarri zaion egintza zehatzaren kopia edo helarazpena, edo dagokion espedienteko edo iragarkia jarri den egunkari ofizialeko edo kontratatzailearen profileko adierazpena.
- d) Bere eskubidea oinarritzen duen agiria edo agiriak.
- e) Aldez aurretik errekurtsua jarriko zuela iragarri duela egiaztatzen duen agiria.

49. klausula.- Berraztertze errekurtsua.

Errekurtsu berezia jaso ezin duten administrazio-kontratuak esleitzeko prozeduretan ematen diren egintzei aukerako berraztertze-errekurtsua jar dakieke, hilabeteko epean, ebazpenaren berri eman eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Hala ezarri da, bat etorritik urriaren 1eko 39/2015 Legean (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena) eta uztailaren 13ko 29/1998 Legean (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzekoa) ezarritakoarekin.


50. klausula.- Baliogabetasun-eskea.

SPKLTBren 37. artikuluan zehaztutako kasuetan, kontratuaren baliogabetasun-eskea proposatu ahal izango da, HOGETA HAMAR (30) EGUN BALIODUNEKO epean, egun hauetatik zenbatzen hasita (SPKLTBren 39. artikulua 3. zenbakiaren arabera):

- a) Kontratua esleitzen denetik, 154.2 artikuluan ezartzen den moduan (lizitazioa Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean ez argitaratzeko justifikazio-arrazoiak barne).
- b) Edo lizitatzailerik gabe jakinarazten zaizkienetik beren hautagaitza edo proposamena atzera botatzeko arrazoiak eta esleipendunaren proposamena aukeratzeko erabakigarriak izan ziren ezaugarriak, alde batera utzi gabe 153. artikulua jakinarazi behar ez diren datuei buruz ezartzen duena.

Kasu horiez aparte, baliogabetasun-eskea sei hilabete igaro baino lehen egin behar da, kontratua formalizatzen denetik zenbatzen hasita.

Derion, 2017ko otsailaren 15ean



I. ERANSKINA

DERIOKO UDALAREN AURREKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

_____ jaunak/andreak (Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia: _____; NANA egin zen lekua eta eguna: _____; NANaren epemuga: _____), _____ enpresaren legezko ordezkari gisa (Identifikazio Fiskaleko Kodea: _____; egoitza soziala: _____, _____ kalea, _____ zk., _____ posta-kodea; telefono-zenbakia: _____; faxa: _____; helbide elektronikoa: _____),

HAU ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNPEAN:

LEHENENGOA.- Bera ordezkari duen enpresak bete egiten ditu hala legeak nola Administrazio Klausula Berezien Pleguak Derioko Udalarekin kontratuak egiteko eskatzen dituzten klausulak, eta kontratu hau gauzatzeko gaitasun juridiko nahikoa duela egiaztatzeko agiriak ditu. Halaber, ordezkari jarduteko gaitasuna duela egiazta dezake baldin eta hala eskatzen bazaio, eta berariaz adierazten du eskura duela gaitasunej, betebeharreri eta abarri buruzko dokumentazioa. Dokumentazio hori (jatorrizkoa edo kopia konpultsatua) Udalak hautatutako lizitatzailleak, hau da, esleipena jasotzeko hautatua denak, soilik emango du.


BIGARRENA.- Bera ordezkari duen enpresak ahalmen osoa du “**DERION HAUR ETA GAZTEEN EUSKARAZKO AISIALDI-ZERBITZUA ESKAINTZEKO KONTRATUA**” betearazteko, eta klausulen pleguetan eskatutako kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala duela egiazta dezake, karatularen 17. atalak zehazten dituen agiriak aurkeztuta.

HIRUGARRENA.- Ordezkatzen duen enpresak ez du administrazioarekin kontratuak egiteko inolako debekurik (debekuok SPKLTBren 54. artikulutik 60.era daude zehaztuta).

LAUGARRENA.- Ordezkatzen duen enpresak egunean ditu indarrean den legeriak ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, eta epe exekutiboan ez du zorrik Derioko Udalarekin. Halaber, hori betetzen duela egiaztatzeko agiriak ditu.

BOSGARRENA.- SPKLTBren laugarren xedapen gehigarriak neurri berean onuragarriak diren proposamenak aurkeztzen diren kasuetarako ezartzen duena betetze aldera:

- ordezkaten duen enpresako langileen % 2 baino gehiagok desgaitasunen bat dauka: _____ (BAI/EZ).
- ordezkaten duen enpresako langileen % _____ baino gehiagok desgaitasunen bat dauka.



DEGIKO UDALA

2017-CAD-2

- ordezkatzen duen enpresak bete egiten ditu abenduaren 13ko 44/2007 Legean (gizarteratze-enpresen araubidea arautzen duena) gizarteratze-enpresatzat jotzeko ezartzen diren baldintzak: _____ (BAI/EZ).

SEIGARRENA.- Hitzematen du baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duten agiriak aurkeztuko dituela kontratazio-organoak hala eskatzen duenean, eta, kontratua bere enpresari esleitzea proposatzen bada, esleipenaren aurretik aurkeztuko ditu agiriak (jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak).

ZAZPIGARRENA.- Enpresa taldearen datuei dagokienez, ordezkatzen duen enpresa BADAGO / EZ DAGO Merkataritza Kodearen 42.1 artikulua adierazten dituen egoeretako batean. Egoera horietako batean baldin badago, AURKEZTUKO DA / EZ DA AURKEZTUKO talde berekoak diren edo Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluan zehaztutako kasu alternatiboetako banakako proposamenak aurkezten dituzten enpresekin.

ZORTZIGARRENA.- Hitzematen dute ABEE gisa lehiatuz gero elkarrekin eta modu solidarioan aurkeztuko direla kontratua esleitzeko prozedurara, eta enpresarien elkarteak eratu dutela kontratua beraiei esleitzen badiete. Hala, konpromisoa hartu duen alderdi bakoitzak, bere eskumenez baliatuz, aldi baterako enpresa-elkartean parte hartuko luke, jarraian adierazten den ehunekoan. Hori betetzeko, guztiak honako erantzukizun-adierazpen hau sinatu dute:

_____ jn./and., _____(r)(e)n
% _____

_____ jn./and., _____(r)(e)n
% _____

_____ jauna/andrea izendatzen dute kontratua indarrean dagoen artean aldi baterako enpresa-elkarteko ordezkaritza izan dadin kontratazio-organoaren aurrean.

Hau izango da aldi baterako enpresa-elkartearen jakinarazpenetarako helbidea:
_____, _____ kalea.

BEDERATZIGARRENA.- Adierazten du honako hauek direla lizitazio honi dagozkion eskakizun, komunikazio eta jakinarazpen guztiak lege ezarritako ondore juridikoetarako egiteko datuak:

Harremanetarako pertsona: _____

Helbidea: _____

Herria: _____ PK: _____

Telefono-zenbakia: _____ Faxa: _____

Helbide elektronikoa: _____




DERIOKO UDALA

2017-CAD-2

_____ (e)n, 2__ (e)ko ____ aren _____ (e)(a)n

(Enpresaren sinadura eta zigilua)

(ABEEen kasuan, ABEEko kide bakoitzaren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da)



II. ERANSKINA

ESKAITZA EKONOMIKOAREN EREDUA

_____ jaunak/andreak (Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia: _____; NANA egin zen lekua eta eguna: _____; NANaren epemuga: _____), _____ enpresaren legezko ordezkari gisa (Identifikazio Fiskaleko Kodea: _____; egoitza soziala: _____, _____ kalea, _____ zk., _____ posta-kodea; telefono-zenbakia: _____; faxa: _____; helbide elektronikoa: _____),

HAU ADIERAZTEN DU:

LEHENENGOA: Enpresa horren izenean eta legezko ordezkari gisa jarduteko ahalmen nahikoa eta subsistentea du, _____ko _____ notarioak eman baitzion _____(e)(a)n, bere protokolo _____ zenbakiaren arabera. Eskumenen artean, hain zuzen, administraziorako zerbitzuen lizitazioetan lehiaztekoa dago.


BIGARRENA. Ezagutzen du eta baldintzarik gabe onartzen du Administrazio Klausula Berezien Plegu honen eta Baldintza Teknikoen Pleguaren eduki osoa, inolako salbuespenik edo eragozpenik gabe, **“DERION HAUR ETA GAZTEEN EUSKARAZKO AISIALDI-ZERBITZUA ESKAITZEKO KONTRATUA”** betearazteko beharrezkoa baita.

HIRUGARRENA. Hitzematen du bete egingo duela lanaren, gizarte-segurantzaren, minusbaliatuak gizarteratzearen eta lan-arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dagoen araudia, bat eginik Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legeak (azaroaren 8ko 31/1995 Legea) eta hura osatzen eta garatzen duten arauak diotenarekin.

HAU HITZEMATEN DU:

_____ (r)en izenean (berea edo enpresarena), kontratu horren kargu egingo dela, Pleguan eskatutako betebeharrak eta klausulak zorrotz beteta, eta jarraian adierazitako xehakapena oinarri hartuta:

	Prezioa, BEZik gabe	BEZa	GUZTIRA
Ludoteka + Gaztelekua			
Udalekuak			
AISIALDI-ZERBITZUA, GUZTIRA			



DERIOKO UDALA

2017-CAD-2

Ondore guztietarako, aurkeztu den eskaintzak, kontratuaren prezioa bera ez ezik, barne hartzen ditu zergak, tasak, kanonak, lizentziak eta kontratua betetzetik sortzen diren beste gastu guztiak.

Zenbatekoak zenbakiz eta hitzez adieraziko dira. Zenbakizko eta hitzezko zenbatekoak ez badatoz bat, hitzez idatzitako zenbatekoak hartuko dira beti aintzat.

Eta hau sinatzen du, _____(e)n, 2__ (e)ko _____aren _____(e)(a)n

(Enpresaren sinadura eta zigilua)



III. ERANSKINA.

KAUDIMEN EKONOMIKOA AURKEZTEKO EREDUA

Ez da eredurik behar.

Urteroko negozio-bolumena egiaztatzeko, Merkataritza Erregistroan erregistratutako urteko kontu onetsiak aurkeztuko dira, betiere enpresaria erregistro horretan izena emanda badago; bestela, izena emanda egon behar duen erregistro ofizialean erregistratutako kontuak aurkeztuko dira. Merkataritza Erregistroan izena eman gabeko enpresariak, urteroko negozio-bolumena egiaztatzeko, inbentarioen liburuak eta urteko kontuak aurkeztuko dituzte, Merkataritza Erregistroak legeztaturikoak, hain zuzen.

(OHARRA: urteroko negozio-bolumena deritzo merkataritza-legerian ezarritako urteko kontuen arauzko ereduen galera eta irabazien kontuan agertzen den negozio-zifraren zenbateko garbiari)



IV. ERANSKINA

KAUDIMEN TEKNIKO AURKEZTEKO EREDUA

_____ jaunak/andreak (NANaren zk.: _____), bere izenean edo _____ gisa (adierazi ordezkaritza-eskumenak: administrari bakarra, ahaliduna...), _____ enpresaren ordezkari gisa (enpresaren IFK: _____), **“DERION HAUR ETA GAZTEEN EUSKARAZKO AISIALDI-ZERBITZUA ESKAINTZEKO KONTRATUA”** betearazteko behar den **KAUDIMEN TEKNIKO** egiaztatzeke,

HAU ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNPEAN:

Azken BOST (5) urteetan egindako lan garrantzitsuenak eranskinean adierazitakoak dira, eta egiaztagiria ekarri ditu hori frogatzeko.

ERANSKINA: EGINDAKO LAN GARRANTZITSUENEN ZERRENDA

Urtea: _____

Kontzeptua	Bezeroa	Fakturatutako zenbatekoa	Ziurtagiria edo dokumentua eman duen erakundea

Urtea: _____

Kontzeptua	Bezeroa	Fakturatutako zenbatekoa	Ziurtagiria edo dokumentua eman duen erakundea

Urtea: _____

Kontzeptua	Bezeroa	Fakturatutako zenbatekoa	Ziurtagiria edo dokumentua eman duen erakundea

Urtea: _____

Kontzeptua	Bezeroa	Fakturatutako zenbatekoa	Ziurtagiria edo dokumentua eman duen erakundea



DERIOKO UDALA

2017-CAD-2

Urtea: _____

Kontzeptua	Bezeroa	Urtean gauzatutako zenbatekoa	Ziurtagiria edo dokumentua eman duen erakundea

Eta horrela jasota gera dadin, adierazitako lizitazio publikorako beharrezkoa den kaudimen teknikoa egiaztatzeko, agiri hau sinatzen du.

_____(e)n, 201_(e)ko ____aren _____(e)(a)n

Sin.:

Enpresaren zigilua:

(OHARRA: esleipendunak aurkeztu behar du, eskaera egin aurretik)



V. ERANSKINA

EUSKO JAURLARITZAKO KONTRATISTEN ERREGISTROKO (EDO, HALA BADAGOKIO, ESTATUKO LIZITATZAILEEN ETA ENPRESA SAILKATUEN ERREGISTRO OFIZIALEKO)

DATUAK BALIOZKOTZEKO ZINPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

_____ jaunak/andreak (NAN zk.: _____),
bere izenean edo _____ gisa (adierazi ordezkari-
administrari bakarra, ahalduna...), _____ enpresaren ordezkari gisa
(enpresaren helbidea: _____; IFK: _____;
Erregistro Ofiziala: _____ –enpresari dagokion erregistroa adierazi–;
erregistro-zenbakia: _____), Derioko Udalak iragarritako **“DERION HAUR ETA
GAZTEEN EUSKARAZKO AISIALDI-ZERBITZUA ESKAINTZEKO KONTRATUA”** izeneko lizitazioan
parte hartzeko,

HAU ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNPEAN:

Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistro Ofizialak (edo, hala badagokio, Estatuko Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialak) egindako ziurtagirian agertzen diren datuak eta egoerak baliozkoak dira eta eguneratuta daude; batez ere, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeak 60. artikuluan zehazten dituen kontratatzekei buruzkoak.

Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistro Ofizialak (edo, hala badagokio, Estatuko Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialak) egindako ziurtagirian agertzen diren datu eta egoera hauek aldatuta daude, erantsi diren agirien bidez egiaztatzen den moduan. Gainerako datu eta/edo egoerek, ordea, bere horretan dira, eta ez dira aldatu ziurtagiri horren edukian adierazitakoetatik (bete egin behar da, hala badagokio).

Aldatu diren datuak eta/edo egoerak: _____

Erantsi diren egiaztagiria: _____

Eta horrela jasota gera dadin, eta dagozkion ondoreak izan ditzan, adierazpen hau sinatu du,
_____ (e)n, 201_ (e)ko _____ aren _____ (e)(a)n.

(Enpresaren sinadura eta zigilua)



VI. ERANSKINA

BERMEAREN EREDUA

_____ erakundeak (kreditu-erakundearen edo elkar bermatzeko sozietatearen izen soziala) (IFK: _____; helbidea: (herria) _____, _____ kalea/plaza/etorbidea; PK: _____), eta haren izenean _____ jaunak/andreak (ahaldunen izen-abizenak), agiri honen behealdean azaltzen den ahalorde-askiestearen arabera dituen eskumen nahikoekin,

HAU BERMATZEN DU:

_____ (abaldunaren izen-abizenak edo izen soziala) (IFZ/IFK: _____),

(ABEEren kasuan) _____ (abaldunen izen-abizenak edo izen soziala) (IFZ/IFK: _____ eta _____), **BATERA ETA SOLIDARIOKI,**

_____ (e)k ezarritakoaren bertutez **“DERION HAUR ETA GAZTEEN EUSKARAZKO AISIALDI-ZERBITZUA ESKAINTZEKO KONTRATUA”** betetzearen ondoriozko betebeharrei erantzuteko Derioko Udalaren aurrean, _____ euroko zenbatekoarekin.

Bermea ematen duen erakundeak bere erantzukizunpean adierazten du APKLAOren 56.2 artikuluan zehazten diren baldintzak betetzen dituela.

Berme hau solidarioki emango zaio obligaziodun nagusiari, eta berariaz uko egingo zaio eskusio-onurari. Halaber, konpromisoa hartzen da Derioko Udalaren lehen errekerimendua jasotzean ordaintzeko, bat etorritik SPKLTB garatzen duten arauak eta gordailu-kutxa orokorra erregulatzen duten arauak zehaztutako baldintzekin.

Berme hau indarrean egongo da Derioko Udalak (edo haren izenean legez gaitutakoak) bermea kitzatzeko edo itzultzeko baimena eman arte, SPKLTBk eta legeria osagarriak xedatutakoarekin bat eginez.

Berme hau egun honetan bertan inskribatu da Bermeen Erregistro berezian, _____ zenbakiarekin.

GORDAILU KUTXA NAGUSIAREN AHOLKULARITZA JURIDIKOAK EDO ESTATUAREN ABOKATUTZAK ASKIETSITAKO AHALORDEA (APKLAOren 58. ART.)

(OHARRA: zenbatekoak hitzez eta zenbakiz adierazi behar dira)



VII. ERANSKINA

KAUZIO-ASEGURUAREN ZIURTAGIRI-EREDUA

_____ ziurtagiri-zenbakiaren, (1)
 _____ jaunak/andreak (hemendik
 aurrera, aseguru-egilea) (helbidea: _____
 _____ kalea/plaza/etorbidea
 _____ PK), _____ IFK duenak, haren
 behar bezalako ordezkari _____ (2)
 jaunaren/andrearen bitartez (behar besteko eskumenak ditu ekintza honetan behartzeko, agiri
 honen beheko aldeko ordezkaritza-egiaztapenetik ondorioztatzen den bezala),

HONAKO HAU ASEGURATZEN DU:

_____ (3) jauna/andrea,
 _____ IFZ/IFK duena,

(ABEEen kasuan), _____ (3) jauna/andrea,
 _____ IFZ/IFK duena, eta
 _____ (3) jauna/andrea,
 _____ IFZ/IFK duena, **ELKARREKIN ETA MODU SOLIDARIOAN,**

aseguru-hartzaile gisa, (4) _____
 jaunaren/andrearen aurrean, hemendik aurrera, asegurutuna
 (5) _____

_____ euroko zenbatekora arte, SPKLTBn, garapen-araudian eta «**DERION HAUR ETA GAZTEEN EUSKARAZKO AISIALDI-ZERBITZUA ESKAINTZEKO KONTRATUA**» arautzen duen Administrazio Klausula Berezien Pleguan ezarritako termino eta baldintzetan, (6) _____ bermearen kontzeptuan, aurrez aipaturiko administrazio-baldintzei eta araei jarraikiz aseguru-egilearen aurrean izan ditzakeen betebeharrak, zigor eta gainerako gastuei erantzuteko.

Aseguru-egileak, bere erantzukizunpean, adierazten du bete egiten dituela APKLAOren 57.1 artikuluan aurreikusitako baldintza guztiak. Prima ez ordaintzeak, ordainketa bakarra zein lehenengoa edo ondorengoak izan, ez dio aseguru-egileari kontratua bertan behera uzteko eskubiderik emango, eta kontratua ez da amaituko, aseguru-egilearen babesa ez da etengo eta aseguru-egilea ez da geratuko bere betebeharretatik aske, aseguru-egilea bada bermea ordaindu behar duena.



DERIOKO UDALA

2017-CAD-2

Aseguru-egileak ezin izango dio eragotzi asegurudunari aseguru-hartzailearen aurka ezarri ditzakeen salbuespenak ezartzea.

Aseguru-egileak konpromisoa hartzen du Derioko Udalak lehenengo errekerimendua egiten duenean indemnitzatuko duela aseguruduna, SPKLTBn eta garapen-arauetan xedatutakoa betez.

Berme hau indarrean egongo da Derioko Udalak (edo haren izenean legez gaitutakoak) kauzio-asegurua kitatzeko edo itzultzeko baimena eman arte, SPKLTBk eta legeria osagarriak xedatutakoarekin bat eginez.

_____ (e)n, 201_(e)ko ____aren ____ (e)(a)n.

Sinadura

GORDAILU KUTXA NAGUSIAREN AHOLKULARITZA JURIDIKOAK EDO ESTATUAREN ABOKATUTZAK ASKIETSITAKO AHALORDEA (APKLAOren 58. ART.)

EREDUA BETETZEKO ARGIBIDEAK

- (1) Aseguru-entitatearen arrazoi soziala, osorik idatzita.
- (2) Ahaldunaren edo ahaldunen izen-abizenak.
- (3) Asegurudunaren izena.
- (4) Kontratazio-organoa.
- (5) Aseguruaren zenbatekoa, letraz eta zenbakiz adierazita.
- (6) Aseguruaren modalitatea: behin-behinekoa, behin betikoa...



VIII. ERANSKINA

OHARRETAN JASOTAKO BALIO BIDEZKO BERME-EREDUA (INSKRIPZIOAREKIN)

_____ jaunak/andreak (izen-abizenak),
_____ jaunaren/andrearen ordezkari gisa
(IFZ: _____; jakinarazpenak eta eskakizunak egiteko helbidea:
(kalea/plaza/etorbidea, _____ posta-kodea _____ eta _____ udalerria)
_____),

Kontuko oharretan adierazitako balio hauek **PIGNORATZEN DITU**
_____ jaunaren/andrearen alde;
balio horien titularra pignoratzailea da, eta hauexek dira:

BALIOEN KOPURUA	JAULKIPENA (ERAKUNDE JAULKITZAILEA), BALIO MOTA ETA JAULKIPENAREN DATA	BALIOEN KODEA	ERREGISTROKO ERREFERENTZIA	BANAKAKO BALIO NOMINALA	BALIOAK GAUZATZEAREN BALIOA INSKRIBATU ZIREN EGUNEAN

_____ (berme honen eraketari aplikatu behar zaizkion arauak eta artikulak) xedatutakoari jarraikiz, honako betebeharrak hauei erantzuteko: **«DERION HAUR ETA GAZTEEN EUSKARAZKO AISIALDI-ZERBITZUA ESKAINTZEKO KONTRATUA» BETETZEA.** Betebeharrak horiek _____ (kontratista edo bermea duen pertsona fisiko edo juridikoa) jaunak/andreak (IFZ: _____; jakinarazpenak eta eskakizunak egiteko helbidea: (kalea/plaza/etorbidea, _____ posta-kodea _____ eta udalerria)

_____ hartu ditu bere gain, zenbateko honetan: (letraz eta zenbakiz idatzita)



DERIOKO UDALA

2017-CAD-2

Kontratu hori ematen da SPKLTBn, garapen-arauetan eta Gordailu Kutxa Nagusia araupetzen duen araudian ezarritakoaren arabera eta horren aurreko erantzukizun osoz.

(Pignoratzailearen izena edo izen soziala)

(Sinadurak)

Nire esku-hartzearekin (notarioa),

(Sinadura)

_____jaunak/andreak (NANaren
zenbakia: _____),

_____ (kontabilitate-
erregistroaz arduratzen den erantsitako erakundea) erakundearen ordezkari gisa, bahia
inskribatu dela ziurtatzen du.

(Data)

(Sinadura)



IX. ERANSKINA

EKONOMIA JARDUEREN GAINEKO ZERGAREN ADIERAZPEN-EREDUA

_____ jaunak/andreak (NANaren zenbakia: _____), bere _____ izenean _____ edo _____ (adierazi ordezkaritza-eskumenak: administrari _____ bakarra, _____ ahalduna) _____ gisa, _____ enpresaren izenean (enpresaren helbidea: _____; IFK: _____),

BERE ERANTZUKIZUNPEAN, HAU ADIERAZTEN DU:

1.- Toki-zergen esparruan indarrean dagoen araudiaren eta, bereziki, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga arautzen duenaren arabera, zerga horren matrikulan alta eman behar du ondoko epigrafeetan, hurrengo epigrafean adierazitako egunean bajarik eman gabe.

EPIGRAFEA	KONTZEPTUA

2.- (Markatu dagokion aukera)

- Zerga ordaindu behar du eta azken ordainagiriaren kopiak aurkeztu ditu.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren (ekainaren 30eko 6/1989 Foru Araua) Testu Bategineko 5.1.g) artikuluan jasota dagoen salbuespen kasua dagokio.
(Jarduera zerga hau garatzen den lehenengo bi zergaldietan abiarazten duten subjektu pasiboen kasuan).
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren (ekainaren 30eko 6/1989 Foru Araua) Testu Bategineko 5.1.h) artikuluan jasota dagoen salbuespen kasua dagokio.
(2.000.000 eurotik beherako eragiketa-kopurua duten subjektu pasiboen kasuan).
- Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren (otsailaren 24ko 1/2004 Foru Araua) 17.2 artikuluan ageri den salbuespen-kasua dagokio.
- Beste salbuespen-kasu batzuk.

Eta horrela jasota gera dadin, eta dagozkion ondoreak izan ditzan, adierazpen hau sinatu du,

_____ (e)n, 201__ (e)ko _____ aren ___(e)(a)n.



DERIOKO UDALA

2017-CAD-2

(Enpresaren sinadura eta zigilua)

(OHARRA: esleipendunak aurkeztu behar du, eskaera egin aurretik)



X. ERANSKINA

KONTRATUAREN XEDEA EXEKUTATZEKO BEHARREZKO BITARTEKO PERTSONALAK ETA/EDO MATERIALAK BIDERATZEKO EDO ATXIKITZEKO KONPROMISOA HARTZEN DELA ADIERAZTEN DUEN ERANTZUKIZUN-ADIERAZPENAREN EREDUA

_____ jaunak/andreak (NANaren zenbakia: _____), bere izenean edo _____ (adierazi ordezkaritza-ahalduna...) gisa, eskumenak: administrari bakarra, enpresaren izenean _____ (enpresaren helbidea: _____); IFK: _____),

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:

«DERION HAUR ETA GAZTEEN EUSKARAZKO AISIALDI-ZERBITZUA ESKAINTZEKO KONTRATUA» izenekoaren xedea osatzen duten prestazioak aipatutako enpresaren jardueraren, xedeen edo helburuen artean daude, enpresaren estatutuetan edo sorrerako araudian ezarrita dagoenaren arabera.

Aipatutako kontratua gauzatzeko, horretarako beharrezkoak diren giza baliabide edo baliabide material hauek atxikitze konpromisoa hartzen du:

1. Baliabide materialak

- 1.1 _____
- 1.2 _____
- 1.3 _____

2. Giza baliabideak

- 2.1 _____
- 2.2 _____
- 2.3 _____

Horrela jasota gera dadin, aipatutako kontratua esleitzeko lizitazioan parte hartzeko helburuarekin, eta SPKLTBren 57.1 eta 64.2 artikuluetan xedatutakoarekin bat eginez, honako adierazpen hau eman da.

_____ (e)n, 201____ (e)ko _____ ren _____ (e)(a)n. (Enpresaren sinadura eta zigilua)



XI. ERANSKINA

**DESGAITASUNEN BAT DUTEN LANGILEAK KONTRATATZEKO KONPROMISOARI BURUZKO
ERANTZUKIZUN-ADIERAZPENAREN EREDUA**

_____ jaunak/andreak (NANaren zenbakia: _____), bere izenean edo _____ (adierazi ordezkaritza- eskumenak: administrari bakarra, ahduna...) gisa, _____ enpresaren izenean (enpresaren helbidea: _____); IFK: _____),

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:

Kontratua berari esleitzen bazaio, kontratu horrek iraun bitartean lantaldean desgaitasunen bat duten langileak izateko betebeharra onartzen du, 100etik 2ko proportzioan gutxienez, enpresak 50 langile edo gehiago baditu, Minusbaliatuak Gizarteratzeari buruzko Legearen (apirilaren 7ko 13/1982 Legea) 38.1 artikuluari jarraikiz, edo, bestela, bere gain hartzen badu 364/2004 Errege Dekretuan, apirilaren 8koan, arauen bitartez deskribatutako neurri alternatiboak betetzeko beharra.

Halaber, konpromisoa hartzen du aipatutako betebeharra bete dela frogatzeko kontratazio-organoaren aurrean, hala egiteko eskatzen zaionean, «**DERION HAUR ETA GAZTEEN EUSKARAZKO AISIALDI-ZERBITZUA ESKAINTZEKO KONTRATUA**» iraun bitartean edo, edozein kasutan, behin betiko bermea itzuli aurretik.

_____ (e)n, 201__ (e)ko _____ ren __ (e)(a)n.

(Enpresaren sinadura eta zigilua)

(OHARRA: esleipendunak aurkeztu behar du, eskaera egin aurretik)



XII. ERANSKINA

ADMINISTRATIOARI AZPIKONTRATAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA JAKINARAZTEKO EREDUA

_____ jaunak/andreak (NANaren zenbakia: _____), bere izenean edo _____ (adierazi ordezkaritza-ahalduna...) gisa, eskumenak: administrari bakarra, _____ enpresaren izenean (enpresaren helbidea: _____); IFK: _____

_____) adierazten du interesa duela «**DERION HAUR ETA GAZTEEN EUSKARAZKO AISIALDI-ZERBITZUA ESKAINTZEKO KONTRATUA**» esleipenean. Hori dela eta, kontratazio-organoari jakinarazten dio, SPKLTBren 227.b) artikulua ondo eratarako, adierazitako prestaziorako honako erakunde hauek azpikontratatzeko asmoa duela, honako ehuneko hauetan:

Adierazi:

- Azpikontratatu den enpresaren izendapena _____, azpikontratatuaren gaitasun tekniko eta profesionalaren adierazpenarekin edo, hala badagokio, sailkapenarekin, obraren edo zerbitzuaren zati bat gauzatzeko edo exekutatzeko gai izango dela justifikatzeko.
- Azpikontratatuak gauzatu behar dituen kontratuaren zatiak edo xedea: _____
- Azpikontratatuak eskaintzen duen zerbitzu partzialak kontratu nagusiaren prezioari dagokionez hartzen duen ehunekoa: % _____

Halaber, jakinarazten du azpikontratuak gauzatzeko eta, hala badagokio, esleitutako zerbitzu-kontratutik eratorritako hornikuntza-kontratuak gauzatzeko, SPKLTBren 228. artikuluan adierazitako betebeharrak beteko direla.

Bestalde, adierazten du azpikontratatu diren pertsonak ez direla kontratatze gaitasunik ez duten pertsonak, antolamendu juridikoari jarraikiz, eta ez direla ageri SPKLTBren 60. artikuluan bildutako kasuetan.

Eta jasota gera dadin eta dagozkion ondoreak izan ditzan,

_____ (e)n, 201__ (e)ko _____ aren _____ (e)(a)n. (Enpresaren sinadura eta zigilua).



XIII. ERANSKINA

ASEGURU-ENTITATEAREN ZIURTAGIRIAREN EREDUA

_____ aseguru-enpresak (bulegoaren
helbidea: _____; IFZ: _____; Merkataritza
Erregistroa: _____),

HAU ZIURTATZEN DU:

_____ enpresak (egoitza soziala:
_____; IFZ:
_____) aseguru-poliza bat kontratatu du (polizaren
zk.: _____); poliza hori indarrean dago eta ordainketa
guztiak egin dira, Derioko Udalak aipatutako enpresari esleitutako kontratua arautzen duten
Administrazio Klausula Berezien Pleguan ezarritakoarekin bat.

_____ (e)n igorria, 201____ (e)ko _____ ren _____ (e)(a)n.
(Aseguru-etxea)

Sinadura:

(OHARRA: esleipendunak aurkeztu behar du, eskaera egin aurretik)



XIV. ERANSKINA

ENPRESAK EMANDAKO INFORMAZIOA ISILPEKOTZAT JOTZEKO EREDUA

_____ jaunak/andreak (NANaren zenbakia: _____), bere _____ izenean _____ edo _____ (adierazi ordezkaritza-ahalduna...) gisa, eskumenak: administrari bakarra, _____ enpresaren izenean (enpresaren helbidea: _____; IFK: _____) Derioko Udalak deitutako «**DERION HAUR ETA GAZTEEN EUSKARAZKO AISIALDI-ZERBITZUA ESKAINTZEKO KONTRATUA**» izeneko lizitazioan parte hartzeko helburuarekin,

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU (SPKLTBren 140. artikuluan aurreikusitako ondoretarako)

_____ gutun-azalean (adierazi zein gutun-azal den) aurkeztutako dokumentazioan isilpekotzat jotzen direla behean zerrendatutako informazioa eta agiriak, eskaintzari buruzkoak, sekretu tekniko eta komertzialak direla medio.

_____ (e)n, 201__ (e)ko _____ aren _____ (e)(a)n.

Sin.:

Enpresaren zigilua

(OHARRA: loteen kasuetan, gutun-azal bakoitzeko adierazpen bat aurkeztu beharko da)



XV. ERANSKINA

KONTRATUAREN LIZITAZIOAN AURKEZTU DIREN AGIRIAK ARGITZEKO ESKAERAREN EREDUA

Kontratua:

Espediente-zenbakia:

..... jaunak/andreak (NANaren zenbakia:), bere izenean edojaunaren/andreak ordezkaritza gisa (jakinarazpenetarako helbidea:; telefono-zenbakia:; fax-zenbakia: eta helbide elektronikoa:),

HAU ESKATZEN DU:

Honako kontu hauek argitzeko; galderek aipatutako kontratuaren lizitazioaren harira aurkeztutako agiriekin dute zerikusia.

	KONTSULTA	AGIRIA ETA KLAUSULA
1	HAU ARGITZEKO ESKATZEN DA:.....	DOKUMENTUA: KLAUSULA:
2	HAU ARGITZEKO ESKATZEN DA:.....	DOKUMENTUA: KLAUSULA:

OHARRA: kotsultak eredu honen arabera igorriko dira, editatzeko moduko formatuan, honako helbide elektronikoa honetara: kontratazioa@deriokokoudala.net.



DERIOKO UDALA

XVI. ERANSKINA

ATZERRIKO ENPRESEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Europako Erkidegoko estatu kideetako enpresa ez espainiarrek honako agiri hauek aurkeztu behar dituzte "B" gutun-azalean:

1. Enpresek jarduteko gaitasuna egiaztatu beharko dute, lanbide-erregistro batean izena emanaz edo APKLAOren I. eranskinean jasota dauden ziurtagiriak aurkeztuz. Agiri horiek guztiek modu ofizialean itzulita egon behar dute gaztelaniara edo euskarara.
2. Lizitatzailleak, bere izenean ari ez denean edo pertsona juridikoa denean, ahalorde askietsia aurkeztu behar du. Agiri horrek ere modu ofizialean itzulita egon behar du gaztelaniara edo euskarara.
3. Kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztietarako, Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla jakinarazteko adierazpena aurkeztu beharko dute, gaztelaniaz edo euskaraz, bai eta lizitatzailleari dagokion atzerriko jurisdikzioko foruari uko egiten diotela jakinarazteko adierazpena ere, hala badagokio.
4. SPKLTBren 60. artikuluan adierazten dituen kasuetan ez dagoela ziurtatzen duen agiria, gaztelaniaz edo euskaraz.

Ziurtagiri hau lekuko judiziala edo administrazio-ziurtagiria izan daiteke, kasuan kasukoa. Administrazio eskudunak agiria eman ezin duenean, haren ordezkizunpeko adierazpena aurkeztu ahal izango da, administrazio-agintari baten, notario publiko baten edo lanbide-erakunde kualifikatu baten aurrean egindakoa. Lizitatzaillearen estatuaren legerian hala jasota badago, agintari judizial baten aurrean egindako erantzukizunpeko adierazpena ere erabili ahal izango da.

5. Europako Erkidegoko estatu kideko agintaritzak eskudunak emandako ziurtagiria, modu ofizialean gaztelaniara edo euskarara itzulia, estatuaren legezko xedapenen arabera zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzako kotizazioak egunean dituela egiaztatuko duena.
6. Saillapena eskatzen bada, Europako Erkidegoko estatu ez-espainiarretako enpresariak aski izango dute kontratazio-organismoari kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa frogatzea, SPKLTBren 75. eta 78. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Europako Erkidegoko estatu kideek bertako enpresariari emandako saillapen ziurtagiriek eta antzeko agiriek gaitasun-presuntzioa sorrarazten dute kontratazio-organismoetan, SPKLTBren 75.1 artikuluko b) eta c), 76. artikuluko a) eta 60. artikuluko a), b), d), eta i) letren arabera.

7. Lizitatzailleak Plegu honetan adierazten den moduan eman beharko du behin-behineko bermea, eta kontratuaren aurrekontuaren % 3koa izango da.



DEGIKO UDALA

8. Europako Erkidegoko estatu kideetakoak ez diren enpresa atzerritarrek, goian aipatutako betebeharez gain, honako hauek ziurtatu behar dituzte:

- a) Jarduteko gaitasuna; horretarako, beren herrialdean dagoen Espainiar Enbaxadaren ziurtagiria beharko da, eta ziurtagiri horretan, adierazi beharko da herrialde hartako lan, merkataritza edo maila bereko erregistroan izena emanda dutela edo, bestela, herrialde hartan sarritan aritzen direla kontratuaren xede diren jardueren esparruan. Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuen kasuan, jarduteko gaitasuna egiaztatu beharko da.
- b) Jatorrizko estatuak Espainiako enpresek administrazioarekiko kontratazioan parte hartzea onartzen duela atzerrikoek Espainian parte har dezaketen modu bertsuan, edo Merkataritzako Mundu Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa sinatu duela. Hori frogatzeko, Espainiako diplomaziako ordezkariak egindako txostena aurkeztu behar da.
- c) Espainian sukurtsala irekita daukala, eta ahalduak edo ordezkariak izendatu dituela eragiketak egiteko.
- d) Merkataritza Erregistroan izena emanda dagoela, bai eta aurreko idatz zatian aipatutako ahalordetzeak ere.
- e) Kontratuaren zenbatekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kontuan izan gabe, SPKLTBren 16. artikuluan agertzen den kopuruaren berdina edo altuagoa baldin bada, ez da eskatuko b) letrak aipatzen duen elkarrekotasun-txostena, Merkataritzako Mundu Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako enpresen kasuan.



DERIOKO UDALA

XVII. ERANSKINA

FUNTZIOAK	NAN	GSko zenbakia	KATEGORIA	URTEKO LANALDIA	ANTZINATASUNA	BESTE BATZUK
Haurren zerbitzua koordinatzaia	78914898 N	481033081229	3	1.553 h	2003/09/22	
Gazteen zerbitzua koordinatzaia	30691413Y	481023297565	3	1.274 h	2005/09/19	Igandeetak o plusa
Haurren monitore-lanak (1)	16082316A	481030156374	4	981 h	2008/11/03	
Haurren monitore-lanak (2)	78913379B	481031135569	4	981 h	2015/10/19	
Gazteen monitore-lanak (3)	45818761R	481049737644	4	981 h	2008/09/29	Igandeetak o plusa